



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2011ko irailaren 9a

7. ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

- Foru Lege proposamena, ekintzaitetza sustatu eta haren garapenerako finantza-funts bat sortzeari buruzkoa. Parlamentu-talde popularrak aurkeztu du (4. or.).
- Foru Lege proposamena, Nafarroako Comptos Ganberari buruzko 19/1984 Foru Legea aldatu eta Nafarroako Parlamentuaren Aurrekontu Bulegoa sortzeari buruzkoa. Parlamentu-talde popularrak aurkeztu du (11. or.).
- Foru Lege proposamena, Nafarroako Gobernuo kideen eta Nafarroako Foru Komunitatearen administrazioiko goi karguen bateraezintasunei buruzko azaroaren 4ko 19/1996 Foru Legea aldatzekoa. Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeak aurkeztu du (14. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Jabeldura, osasun-garraioa antolatzeko eta/edo kudeatzeko ereduari buruzkoa, Asun Fernández de Garai-alde y Lazkano andreak egin (16. or.).
- Jabeldura, Nafarroako Gobernuak oro har bakegintzari eta normalizazio politikoari buruz duen jarrerari buruzkoa, Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeak egin (17. or.).
- Jabeldura, jakiteko zer arrazoi izan zituen Nafarroak 600 milioiko defizita sortzeko 2010ean zehar eta zer ondorio izan dituen horrek gastu publikoaren politikan, Santiago Cervera Soto jaunak egin (18. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Espainiako eta Nafarroako gobernua premiatzen dira kondenatu eta gaitzets ditza-ten 1936ko uztailaren 18ko altxamendu militarra eta diktadura frankista. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (19. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da itzul dezan zergadunek eta enpresek PFEZa eta BEZa direla-eta aurreratu duten dirua. Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeak aurkeztu du (20. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da konpromiso irmoa, argia eta lehentasunezkoa izan dezan osasun publikoarekin. Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeak aurkeztu du (21. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentua premiatzen da ETA talde terrorista kondena dezan. Parla-mentu-talde Popularrak aurkeztu du (22. or.).

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da amatasuna benetan babesteari buruzko plan bat ezar dezan. Parlamentu-talde Popularrak aurkeztu du (23. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da kontzertazio sozialeko prozesuan sar ditzan autonomoen kolektiboaren erakundea eta ANEL. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (25. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da behar diren urratsak egin ditzan Banca Cívica-ren akzioen titulartasuna Nafarroako Gobernura pasa dadin. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (26. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak exijitzen du Espainiako Gobernuko lehendakariak proposatutako konstituzio-erreforma ez dadila tramita Gorte Nagusien legegintzaldi honetan. Izquierda-Ezkerre parlamentu-taldeak aurkeztu du (27. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da plan bat aurkez dezan, Nafarroako defizit publikoa murrizteari eta konsolidazio fiskalari buruzkoa. Parlamentu-talde Popularrak aurkeztu du (28. or.).

F SAILA:**Galderak:**

- Galdera, inbestidura prozesuaren ondotik eginiko kontsulta-txandan zeinek hartuko zuten parte erabakitzeko jarraitutako irizpideei buruzkoa, Maiorga Ramírez Erro jaunak egina (30. or.).
- Galdera, jakiteko ea Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak noiz egin behar duen toxikazio, neke edo arrisku bereziko egoeren gaineko azterlana, Asun Fernández de Garaialde y Lazkano andreak egina (31. or.).
- Galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuak zer jarrera duen Espainiako Gobernuko lehendakariak iragarritako konstituzio-aldaketari buruz, Maiorga Ramírez Erro jaunak egina (31. or.).
- Galdera, PFEZaren eta BEZaren itzultze-prozesua eten izanaren arrazoari buruzkoa, Maiorga Ramírez Erro jaunak egina (32. or.).
- Galdera, Nafarroako Kutxak Banca Cívican duen partaidetzari buruzkoa, Manu Ayerdi Olaizola jaunak egina (32. or.).
- Galdera, diru-sarreraren eta gastuen exekuzioari buruzko hiru hilekoko egoera-orriaren argitalpenari buruzkoa, Amaya Zarranz Errea andreak egina (33. or.).
- Galdera, jakiteko ea zergatik ez diren jakinarazi gastu eta diru-sarrera fiskalek bigarren hiru hilekoan izandako bilakaerari buruzko datuak, Maiorga Ramírez Erro jaunak egina (34. or.).
- Galdera, jakiteko asmorik ba ote den ondareari buruzko zerga ezartzeko legegintzaldi honetan, Ana Beltrán Villalba andreak egina (35. or.).
- Galdera, jakiteko ETBko bi kanalak ikusi ahal izatea zenbat kostatuko litzatekeen, Manu Ayerdi Olaizola jaunak egina (35. or.).
- Galdera, Urdiain-Altsasuko industrialdearen egoerari buruzkoa, Manu Ayerdi Olaizola jaunak egina (36. or.).
- Galdera, baliabideak osasun pribatura bideratzeari buruzkoa, Bakartxo Ruiz Jaso andreak egina (37. or.).
- Galdera, 2012tik 2015era bitarteko urteei dagokien Nafarroaren Programazio Ekonomikoa egiteko eta onesteko prozesuari buruzkoa, Maiorga Ramírez Erro jaunak egina (38. or.).
- Galdera, diru-sarrera fiskalei eta eginiko aurreikuspeni buruzkoa, Maiorga Ramírez Erro jaunak egina (38. or.).
- Galdera, Enplegu Plana egiteari eta onesteari buruzkoa, José Fernando Ibiltzieta Olleta jaunak egina (39. or.).
- Galdera, San Frantziskoko liburutegi publikoak eman behar dituen zerbitzuei buruzkoa, Txema Mauleón Echeverría jaunak egina (40. or.).
- Galdera, oinarritzko errentaren kudeaketan eta ordainketan gertatzen ari diren atzerapenei buruzkoa, Txema Mauleón Echeverría jaunak egina (40. or.).
- Galdera, jakiteko ea Nafarroako Gobernuak lagundu ote duen Gazteriaren Mundu Jardunaldien antolaketan, Maiorga Ramírez Erro jaunak egina (41. or.).
- Galdera, jakiteko ea Nafarroako Gobernuak izan ote zuen Espainiako armadak Nafarroako lurraldean eginiko ekitaldiaren berri, Bakartxo Ruiz Jaso andreak egina (42. or.).
- Galdera, Nafarroako Administrazio Publikoan dagoen burutza kopuruari buruzkoa, Víctor Rubio Martínez jaunak egina (42. or.).
- Galdera, mendekotasun-egoeran daudenentzako laguntzak ordaintzeari buruzkoa, Txema Mauleón Echeverría jaunak egina (43. or.).

- Galdera, Hezkuntza Departamentuko zuzendari nagusi izandako bat ikastetxe itundu bateko zuzendari izatera pasatzeari buruzkoa, Nekane Pérez Irazabal andreak eginga (44. or.).
- Galdera, emakumeen parte-hartze asoziatiboa sustatzen duen proiektu bat finantzatzeko erabilitako kontusail bati buruzkoa, Nekane Pérez Irazabal andreak eginga (44. or.).

G SAILA:**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Socialistas de Navarra parlamentu-taldearen eleduna aldatzea (45. or.).
- Pedro Rascón Macías jauna Socialistas de Navarra parlamentu-taldean sartzea (45. or.).
- José Javier Esparza Abaurrea jaunak foru parlamentari izaerari uko egitea (45. or.).
- José Iribas Sánchez de Boado jaunak foru parlamentari izaerari uko egitea (46. or.).
- Lourdes Goicoechea Zubelzu andreak foru parlamentari izaerari uko egitea (46. or.).
- Juan Luis Sánchez de Muniain Lacasia jaunak foru parlamentari izaerari uko egitea (46. or.).

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, ekintzailtza sustatu eta haren garapenerako finantza-funts bat sortzeari buruzkoa.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko irailaren 1ean egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobeitzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Parlamentu-talde Popularrak aurkeztu du ekintzailtza sustatu eta haren garapenerako finantza-funts bat sortzeari buruzko Foru Lege proposamena.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 147. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Agintzea ekintzailtza sustatu eta haren garapenerako finantza-funts bat sortzeari buruzko Foru Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

2. Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduko 147. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2011ko irailaren 2an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Foru Lege proposamena, ekintzailtza sustatu eta haren garapenerako finantza-funts bat sortzeari buruzkoa

ZIOEN AZALPENA

Foru Lege honen xedea da arau- eta zergaingurune lagungarria sortzea ekintzailtza jarduenerako, hura modu zabalean ulertuta, enplegurako eta gizartea hazi ahal izateko aukerak sortzen dituzten jarduera ekonomiko berriei ekiteko ahalmen gisa.

Egungo krisi ekonomikoko egoeran, Nafarroan ere modu berriazkoan pairatzen ari baita, beharrezkoa da administrazio publikoek eskura dituzten

baliabide guztiak artikulatzea eta ekintzailtza sustapenera bideratzea. Ekintzailtza garatu behar duen esparruak eskatzen du, funtsean, ekimen pribatua eragotzi dezaketen eskakizun burokratiko eta fiskalak arintzea, bereziki jarduera ekonomikoren bat ezerezetik hasteari dagozkionak. Mundu garatua egiaztatu denez, enpresako aukerak eta aukera ekonomikoak sortzeko pertsonen eta enpresen ekimenari, gehien lagundu dioten herrialdeek, beharrezkoak ez diren esku-hartzeak alde batera utzita, hazkuntza eta garapen sozialari buruzko tasa hobeak dituzte. Ekintzailtza ez da soilik eginkizun ekonomikoa; aldiz, balio soziala ere bada, botere publiko guztietatik sustatu eta babestu behar dena, lagungarria baita gizartean, pertsonen eta familien garapen jarraitu eta sinesgarriko.

Nafarroako Foru Komunitatean beharrezkoa da ekintzailtza bereziki sustatzea. Ezagutza eta talentua sortzeko ahalmen egiaztatutako aukera izan behar du, traba eta oztoporik gabe, abagunak eragitea ahalbidetuko duten enpresa-egiturak sortzeko ahalmen bihurtzeko. Nafarroako mugimendu ekintzailea errealitate garrantzitsua da, izaera zibilekoa baina ahalik eta laguntza publiko handiena eskatzen duena, eta hazkuntza sozial eta ekonomikoari modu sinesgarrian laguntzeko gaitasuna erakutsi duena.

Araudiaren ikuspuntutik, ezinbestekoa da testu batean zehaztea botere publikoek ekintzailtza hartutako konpromisoa. Hori dela eta, lege hau beharrezkoa da, proiektu ekintzaileak gauzatzeko pizgarrien eta erraztasunen esparru bat sortzen duen neurrian, zenbait kasutan onetsi diren araualdaketa zehaztatetik haratago.

Lege honek hiru alderdi azpimarratzen ditu bereziki:

Lehenbizikoa, enpresa bat sortzeko beharrezkoak diren administrazio-izapideak erraztea; izan ere, askotan motelak, korapilatsuak eta garestiak izaten dira enpresa-jarduera berri bati ekin nahi dioten pertsonentzat. Arlo horretan, helburua da

ezinbesteko izapideak gutxienekoak izatea, eta, halaber, doakoak izatea izapide horiek betetzea beharrezkotzat jotzen dutenentzat.

Bigarrenik, zerga-esparru bar ezartzen da, zeinetan Nafarroako Foru Komunitateak, Estatuarekiko Hitzarmen Ekonomikoa erabat errespetatuta, berezkoak dituen gaitasunak aplikatu ditzakeen ekintzailetza sustatzeko, halako moduz non zerbait zergaren ehunekoak murrizten diren eta egungo sistema okerra saihesten den; izan ere, enpresak izaten dira, zailtasun egoeretan ere, Administrazioaren finantzatzaile gisa jarduten dutenak.

Hirugarrenik, finantza-funts bat sortzen da ekintzailetzaren garapenerako. Tresna berri honek bidea emanen du kopuru egokiak bideratzeko enpresa berriak abian jartzera, hazi-kapitalaren eta pertsona bakoitzari eginiko ekarpen bidez, kasua bada. Funts hori irizpide erabat profesional eta botere politikotik kanpokoen bidez arautuko da eta tresna boteretsua izanen da garapen ekonomikoari laguntzeko garai honetan, non zalantza sozialaz gain zerga-defizit handia baitago Nafarroan eta non ez baita komenigarria ez zergak igotzea ez aurrekontu-desorekak bere horretan irautea.

Legeak beste neurri batzuk jasotzen ditu, ekintzailetza errazteari buruzkoak, eta neurri horiek era koherentean eta behar bezain esplizituki egituratzen ditu. Onartuta dago ekintzailetzak beharrezkoa duela zenbait aldaketa egitea gizarte- eta hezkuntza-balioen sisteman, hala nola porrota onartu eta hartatik ikasteko gaitasunean, eta beharrezkoa da, halaber, estrategiak lantzea beste arlo askotan. Hezkuntza etapa desberdinetan ekintzailetzari buruzko balorazioa eta ulerkuntza sartzeari buruzko estrategiei arreta handia eskaintzen zaie, baina estrategia horiek ez dira arau honen artikuluetan azaltzen; izan ere, ulertzen da ekintza integraleko eredu baten barruan aztertu behar direla, pizgarri ekonomiko eta arauzko zehatzen eredutik haratago. Horretarako, bidea eman behar da beste arau-esparru batzuetan ere beharrezkoak diren aldaketak egiteko, prozedura aldetik egokitzat jotzen den garaian.

I. KAPITULUA

Xedapen orokorrak

1. artikulua. Legearen xedea.

Lege honen xedea da ekintzailearen figura zehaztea eta haren jarduna sustatzeko marko bat garatzea Nafarroako Foru Komunitatearen eskumenen esparruan. Horretarako, zerga-araubide berariazkoa ezarriko da, ekintzailetzaren garapenerako finantza-funts bat sortuko da, betebeharrak

burokratiko eta administratiboak malgutuko dira, eta pizgarriak ezarriko dira enpresen sorkuntza, haien finantzaketa eta ondorengo garapena errazte aldera.

2. artikulua. Ekintzailearen definizioa.

Bat. Foru lege honen ondorioetarako, ekintzailetzat hartuko dira jarduera ekonomiko bat garatu ahal izateko –langile autonomo, kooperatiba-kide, enpresa txiki eta ertain baten bazkide edo lan-sozietate baten bazkide gisa, edota zuzenbidean onartutako beste edozein merkataritza-formula baten bidez– aurretiazko izapideak egiten ari diren pertsona fisikoak, egoitza fiskala Nafarroako lurraldean badute, eta, betiere, bazkide kopurua bost baino gehiagokoa ez bada.

Bi. Ekintzailearen kontzeptuaren barruan sartu ahalko dira merkataritza-sozietateak, langile autonomoak eta beste sozietate mota batzuk, 24 hilabete baino gutxiago badira eratu zirenetik edo Gizarte Segurantzaren alta eman zutenetik, kasuaren arabera, betiere aurreko jardueraren jarraipena edo zabalkuntza ez bada.

3. artikulua. Salbuespenak.

Pertsona bakarreko sozietateen edota langile autonomoen kasuan, ezin izanen dira ekintzailetzat hartu pertsona bakarreko beste enpresa baten bazkide bakarrak badira, edota 24 hilabete baino gehiago badaramatzate araubidean alta emanda.

II. KAPITULUA

Enpresen alta eta jardueraren hasiera izapidetzeko hobekuntzak

4. artikulua. Administrazioaren azkartasunaren printzipioa.

Nafarroako Foru Komunitatearen eskumen-esparruan, beharrezkoak diren neurriak hartuko dira, enpresa bat sortzeko behar diren betekizunak hasten direnetik aldeko ebazpena eman arteko denbora ahalik eta gehien murrizteko.

5. artikulua. Enpresen alta emateko izapideak eta kudeaketa.

Bat. Horretarako, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak hitzarmenak ziurtatuko ditu Nafarroako Merkataritza eta Industria Ganberarekin eta beste entitate kudeatzaile batzuekin, beharrezkoak diren izapideak leihatila bakarraren prozeduraren bidez egin ahal izateko.

Bi. Nafarroako Gobernuak eta udalek behar bezala akreditatutako kudeaketa entitateak eskuordetu ahalko dituzte enpresak sortzeko aurreikusita dauden izapideak formalizatu eta baimentze-

ko, legez dagozkion beharkizunak deusetan ukatu gabe.

6. artikulua. Administrazioaren zama murriztea.

Bat. Nafarroako Gobernuak pixkanaka murriztu eta ezabatuko ditu administrazio-zamak, informazio-betebeharrak direla-eta ekintzaileentzat kostu handiagoa eragiten duten arloetan. Ezabatze eta murrizte hori honako ekintzen bidez egingen da:

1. Ezinbestekoak diren deklarazioen maiztasuna beharrezkoa den gutxienera murriztuta.
2. Errepikapenak ezabatuta.
3. Informazio-jasotzea automatizatuta, deklarazio elektronikoa egiteko sistemen bidez.
4. Informazioa lehentasunez eskatuta arrisku handieneko jarduerak egiten dituzten herritarrei.
5. Garapen ekonomikoa moteldu dezaketen administrazio-izapideen gaineko informazioa eskuratzeari erraztuta.

7. artikulua. Jarduera hasteko izapideak.

Bat. Foru lege honen xede den enpresa sortu berria gehienez ere bi hilabeteko epera bildu ahal da Nafarroako Gobernuaren eta Nafarroako udalen menpeko administrazio-izapide guztiak egiteko, bereziki jarduera gauzatzeko beharrezkoak diren toki- eta erkidego-mailako lizentziei dagokienez. Horretarako, Nafarroako Gobernuak prozedura integratu eta esplizitua ezarriko du, epe finkoak dituen, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioarekin adostuta. Prozedura hori erregelamendu bidez onetsiko da.

Bi. Era berean, erkidegoko eta tokiko administrazioen arteko eta notarioen eta erregistratzaileen arteko lankidetzak tresnak indartuko dira eta telematikaren erabilera arinduko da, enpresen sorrari eta ondoren administrazio publikoekin izan beharreko harremanei dagokienez.

8. artikulua. Nafarroako administrazio-zamaren eta -sinplifikazioaren indizea.

Bat. Nafarroako Gobernuak Nafarroako enpresen administrazio-zamaren eta -sinplifikazioaren indize bat diseinatu eta prestatuko du urtero. Indize horrek jasoko ditu ekintzaileek jasan behar dituzten eta foru erkidegoan eskumenak dituen edozein administrazioan sorturikoak diren administrazio-zama guztiak.

Bi. Nafarroako administrazio-zamaren eta -sinplifikazioaren indizea zehaztuko da Ekonomiako Lankidetzak eta Garapenerako Antolakundeko beste herrialde batzuek administrazio-zama neur-

tzen duten antzera, eta, halaber, metodo bat ezarriko da administrazio-araubideak enpresentzat eta autonomoentzat dakartzan kostu eta zergak kalkulatzeko.

III: KAPITULUA Ekintzailetzaren zerga-araubidea

9. artikulua. Zerga-pizgarrien aplikazio-esparrua zabaltea tamaina txikiko enpresetara.

Bat. Kapitulu honetan tamaina txikiko enpresentzat ezarritako zerga-pizgarriak aplikatuko dira kasuko ekitaldiaren aurreko zergaldiko negozio zifraren zenbateko garbia 10 milioi eurotik beherakoa bada eta 50 langile baino gutxiagoko enpresak badira.

Bi. Entitatea sortu berria bada, negozio zifra hori kalkulatzeko, jarduera benetan gauzatu den lehenbiziko zergaldia hartuko da aintzat. Aurreaurreko zergaldia urtebete baino gutxiagokoa izan bada edo jarduera hori urtebete baino gutxiagoan gauzatu bada, negozio zifraren zenbateko garbia urtea osatu arte luzatuko da.

Hiru. Delako entitatea sozietate talde bateko kidea bada (Merkataritza Kodearen 42. artikulua definitzen duen bezala), talde horren kide diren sozietateen multzoa aintzat hartuta kalkulatu da negozio zifraren zenbateko garbia. Irizpide hori bera aplikatuko da pertsona fisiko bat, baldin eta bera bakarrik edo ezkontidearekin edota ahaide dituen beste pertsona fisiko batzuekin elkar hartuta (ahaideak lerro zuzenekoak nahiz aldamenekoak izan, odol bidezkoak nahiz ezkontza bidezkoak, bigarren graduraino, bigarrena barne), Merkataritza Kodearen 42. artikulua beste entitate kide diren batzuekiko aipatzen dituen egoeretako batean gertatzen bada, kontuan hartu gabe entitatearen egoitza edota urteko kontu bateratuak formulatzeko betebeharra.

Lau. Kapitulu honetan ezarritako zerga-pizgarriak aplikatuko dira, halaber, aurreko idatz-zatian aipatu entitateak edo entitate-multzoak 15 milioi euroko negozio zifraraz, artikulua honetan ezarritakoaren arabera kalkulatu, iristen den ekitaldiaren hurrengo hiru ekitaldietan, betiere entitate horiek bete badituzte tamaina txikikoak izateko baldintzak, bai ekitaldi horretan bai horren aurreko bi zerga-ekitaldietan.

10. artikulua. Sozietateen gaineko zerga.

Bat. 10 milioi euroko urteko negozio-kopuru garbia gaintzen ez duten enpresei aplikatuko zaien zerga-tasaren murrizketa iraunkorra eta baldintzarik gabea ezarriko da.

Bi. 10 milioi euroko urteko negozio-kopuru garbia gainditzen ez duten enpresei sozietateen gaineko zergaren karga-tasa murriztua ezarriko zaie.

10 milioi eurotik beherako urteko negozio-kopuru garbia duten entitateek ehuneko 20ko karga-tasa ordainduko dute.

Hiru. Zerga-ordainketa hobetzea I+G+b jardueretan parte hartzeagatik eta ekintzaileek enpresa-jarduerak hasteagatik.

Kenkariaren oinarria ikerketari eta garapenari buruzko gastuen zenbatekoa izanen da, eta, kasua bada, bai eta ibilgetu material eta ukiezineko ondasunetan eginiko inbertsioa ere, higiezinak eta lurzatiak kontuan hartu gabe.

Ikerketari eta garapenari buruzko gastutzat hartuko dira subjektu pasiboak eginikoak, aipatu jarduerari atxikitako ondasunen amortizazioak barne, jarduera horiekin lotura zuzena izan eta egiazki horiek gauzatzera bideratzen diren unetik. Gastuak proiektuen arabera xehakaturata jaso beharko dira. Kenkariaren oinarriari kenduko zaio jarduera horiek sustatzeko jasotako eta zerga-ekitaldian diru-sarrera gisa egoztekoak diren dirulaguntzen ehuneko 65.

Era berean, ikerketari eta garapenari buruzko gastutzat hartuko dira subjektu pasiboaren enkarguz jarduera horiek egiteko ordaindu diren kopuruak, bakarka edo beste entitate batzuekin lankidetzan, zenbateko osoaren ehuneko 90eko mugarekin, ekintzaileek sortu berriak dituzten enpresek lehenengo urte fiskalean eginiko jardueren kasuan, eta ehuneko 50eko mugarekin bigarren urtean.

11. artikulua. Zenbait aktibo ukiezinetatik eratorritako diru-sarreraren murrizketa.

Bat. Patenteak, marrazkiak edo ereduak, planoak, formulak edo prozedura sekretuak ustiatzeko edo erabiltzeko eskubideak, industria-merkataritza- edo zientzia-esperientziei buruzko informazioen gaineko eskubideak, edota markak, literatura lanak, lan artistikoak edo zientifikoak, filmak barne, erabili edo ustiatzeko eskubideak, edota lagatzen ahal diren eskubide pertsonalak, hala nola irudi eskubideak, programa informatikoenak, industria, merkataritza edo zientzia arloko ekipoenak lagatzearen ondoriozko diru-sarreraren ehuneko 50 sartuko da zerga-oinarrian, ondoko baldintzak betetzen direnean:

1. Entitate lagatzailea lagatzen diren aktiboen sortzailea izatea.

2. Lagapen-hartzaileak jarduera ekonomiko batean baliatzea erabilera edo ustiapeneko esku-

bideak, eta baliatze horren emaitzak ez daitezela gauzatu lagapen-hartzaileak egiten duen ondasun-ematean edo zerbitzu prestazioan, baldin eta zergen arloan kengarriak diren gastuak sortzen badituzte entitate lagatzailean, eta, betiere eta, azken kasu horretan, entitate hori lagapen-hartzailearekin lotuta badago.

3. Lagapen-hartzaileak egoitza ez izatea tributazio gabeko edo paradisu fiskaltzat jotako herrialde edo lurralde batean.

4. Lagapen kontratu berean zerbitzuen prestazio osagarriak sartzen direnean, zerbitzu horiei dagokien kontraprestazioa zehaztu beharko da kontratuan.

5. Entitateak beharrezkoak diren kontabilitate erregistroak izatea, lagapenaren xedeko aktiboek dagozkien diru-sarrera eta gastuak, zuzenekoak eta zeharkakoak, zehaztu ahal izateko.

Bi. Murrizketa ez da aplikatuko ondokoa gertatu eta hurrengo zergalditik aurrera: aktibo bakoitzaren lagapenetik heldu diren diru-sarrerak, hots, lagapenaren hasieratik konputatu eta murrizketarako eskubidea izan dutenak, sortutako aktiboaren kostua halako sei baino handiagoak direnean.

12. artikulua. Tamaina txiko enpresen kapitalean inbertitzeagatik kenkaria.

Zergadunek zerga horren kuota diferentzialari kendu ahalko diote tamaina txikiko enpresentzako pizgarri fiskalak aplikatu ahal zaizkien enpresen kapitaleko partaidetza eskuratzera bideraturiko zenbatekoen ehuneko 10.

13. artikulua. Balio erantsiaren gaineko zergaren likidazioa, kontuan hartuta sorrarazitako eta jasandako kuoten egiazko kobrantzak eta ordainketak.

Bat. Enpresaburuek eta profesionalek, beren urteko negozio zifra garbia ez bada hamar milioi eurotik gorakoa, likidazio-aldi bakoitzeko balio erantsiaren gaineko zerga zehaztu ahalko dute kontuan hartuta aldi horretan edo beste likidazio-aldi batean sorrarazitako kuotak, kuota horiek likidazio-aldi horretan egiazki kobratu diren neurrian, betiere aintzat hartuta aldi horretan edo beste likidazio-aldi batean jasandako kuotak, horiek likidazio-aldi horretan ordaindu badira.

Bi. Artikulu honetan aurreikusiko aukerak urte natural osoen arabera lotuko du subjektu pasiboa, erregelamendu bidez ezartzen den moduan.

14. artikulua. Enpresa gazte eta berritzaileetarako eginiko ekarpenengatik kenkariaren muga.

Honen bidez, 23/2010 Foru Legea, zenbait zerga hein batean aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzekoa, aldatzen da, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko gehieneko kenkaria ezartzeko enpresa gazte eta berritzaileentarako eginiko ekarpenengatik. Ezarritako muga da xede horretara bideraturiko zenbatekoen ehuneko 50, 10.000 euroko mugarekin.

15. artikulua. Enpresa-jarduera hasteari loturiko udal tasa eta prezio publikoengatik konpentsazioa.

Bat. Nafarroako Gobernuak laguntzen lerro bat arautuko du jarduera ekonomikoak hasten dituzten pertsonak eta tamaina txikiko enpresek kasuko jarduera profesionala edo enpresa-jardueraren hasiera dela-eta ordaindu behar dituzten tokiko tasa eta prezio publikoengatik egiten dituzten gastuak ordaintzeko, betiere aipatu tasek lotura badute jarduera horien hasierarekin.

Bi. Konpentsazioaren onuradunak izanen dira Nafarroako Foru Komunitatean enpresa-jarduera bat edo jarduera profesional bat hasten duten pertsona fisikoak eta mikroenpresak.

Hiru. Laguntzaren xede izanen dira Nafarroako Foru Komunitateko udalek ezarritako tokiko tasen ordainketaren ondorioz eginiko gastuak, betiere gastu horiek beharrezkoak badira interesatuek kasuko enpresa-jarduerak edo jarduera profesionalak hasi ahal izateko. Laguntzaren zenbatekoa izanen da onuradunek autolikidazioaren edo likidazioaren sistemaren bidez ordaindu dituzten tasen edo prezio publikoen ehuneko 100ekoa.

IV. KAPITULUA **Ekintzaitzarako eta** **Lehiakortasunerako Funtsa**

16. artikulua. Ekintzaitzarako eta Lehiakortasunerako Funtsa sortzea.

Bat. Foru lege honetan ezarritako helburuak betetze aldera, Ekintzaitzarako eta Lehiakortasunerako Funtsa sortuko da. Funts horren xedea izanen da ekintzaileek sustatutako proiektu berritzaileak finantzatzea eta sozietate-kapitala jartzea hautatzen diren ekimenetarako.

Bi. Ekintzaitzarako eta Lehiakortasunerako Funtsak inbertsio-funtsen izaera izanen du, eta ezarritako helburuak lortzera bideratutako kapital publiko eta pribatuak jartzeko bidea emanen du. Ekintzaitzara-proiektuetarako hazi-kapitala jartzea eta pertsona bakoitzari eginiko ekarpenak egitea sustatuko du, bere eskumenen esparruan, eta estatutu bidez ezarriko dira bere baliabideak modu

egokienean banatzea ahalbidetuko duten printzipio eta irizpideak.

17. artikulua. Nortasun juridikoa.

Funtsa Sociedad para el Desarrollo de Navarra (Sodena) enpresa publikoak kudeatuko du, foru lege honetan ezarritako eragiketa- eta gobernantza-irizpideei jarraikiz. Sodena izanen da funtsaren kudeatzaile eta administratzaile bakarra.

18. artikulua. Aukeren Batzordea.

Bat. Ekintzaitzarako eta Lehiakortasunerako Funtsak kudeaketarako autonomia izanen du, eta haren jarduna aukeren batzorde batek zuzenduko du. Batzorde hori osatuko dute ekintzaitzarekin zerikusia duen garapen ekonomikoaren arloan –nazioan edo nazioartean– entzute handia duten pertsonak.

Bi. Batzorde horren eskumena izanen da finantzaketa izan dezaketen proiektuak aukeratzea, bai eta egindako jardueren txostena eta oroitidazkia egitea ere. Aukeren Batzordeak zazpi kide izanen ditu; horietatik 5 Nafarroako Parlamentuak izendatuko ditu, eta gainerako biak, berriz, Nafarroako Gobernuak.

Hiru. Aukeren Batzordeko kideek ez dute ordainsaririk jasoko beren eginkizuna betetzeagatik.

19. artikulua. Funtsaren zuzkidura.

Bat. Hasierako zuzkidura gisa, egun Sodenaen jabetzakoak diren Iberdrola SA enpresaren akzioen salmentarekin lorturiko zenbatekoa esleituko zaio. Horretarako, foru lege hau argitaratu eta 20 eguneko epean aipatu sozietateak dituen akzio guztiak epe horren barruan saltzeko agindua emanen da, ekintza batean edo gehiagotan.

Bi. Jarduteko programa bat ezarriko du Funtsak, halako moduz non ziurtatuko baita hiru urteko epean, funtsa eratzen denetik hasita, Iberdrola SA enpresaren akzioen salmentarekin lorturiko diru kopuruaren parekoak edo handiagoak izanen direla hazi-kapitaleko inbertsioa eta pertsona bakoitzari eginiko ekarpenak.

Hiru. Hauek izanen dira funtsaren aktiboak:

1 Aurreko artikuluan adierazitako hasierako ekarpena.

2 Hirugarrenen baliabideak, ekarpen publikoak eta pribatuak barne.

3 Proiektuetan parte hartzeagatik lortutako etekinak.

4 Gobernuak urtero ezarriko du Nafarroako aurrekontuetan funtsera bideratuko duen diru kopurua.

20. artikulua. Kudeaketa eta inbertsioei lehenetasunak ezartzea.

Ekintzailetzarako eta Lehiakortasunerako Funtzak bere inbertsio-lana egiten du, eta proiektuetarako lehenetasunak ezarriko ditu, ondoko irizpideei jarraikiz.

1. Funtzak ezarriko ditu hazi-kapitaleko eta pertsona bakoitzari eginiko ekarpenetarako aplikatzeak diren zenbatekoak. Zenbateko horiek lehia bidez aplikatuko dira, proiektuen lehiaketa publikoa ezarriko da, eta baliabideak esleituko dira gardentasun printzipioei zorrozki jarraikiz.

2. Funtzak lehenetasuna emanen die ekarpen berritzaile handiagoa sortzen duten jarduerari, bai eta merkatu-aukera ase gabeak hartzen dituztenak, talentuari balio gehien ematen diotenak edota negozio-joera sortu berriak egiazki aintzat hartzen dituztenak ere.

3. Funtzak, edonola ere, bere jardunean baloratuko ditu garatzen duen jardueraren esparruekin zerikusia duten nazioarteko joerak, eta egiten dituen aplikazio finantzarioak arautuko ditu merkatuko ingurunearen eta berrikuntza zientifikoaren ondorioz sorturiko aukeren ikuspegi zabal bati jarraikiz.

21. artikulua. Estatutuak.

Estatutu bidez ezarriko dira funtsak bere jardunean aintzat hartuko dituen gardentasun, ekitate eta errentagarritasun printzipioak. Irizpide horiek Nafarroako Parlamentuko kasuko batzordeak eta Nafarroako Gobernuak onetsi beharko dituzte. Horretarako, Sodenak erakunde horiei igorri beharko die funtsa kudeatzeko irizpideen proiektu bat, Aukeren Batzordea eratu eta bi hilabeteko epean.

V. KAPITULUA

Izaera informaleko inbertitzaile pribatuak

22. artikulua. *Bussiness angels* izeneko izaera informaleko inbertitzaile pribatuak.

Bat. Foru lege honen ondorioetarako, *bussiness angels* izeneko izaera informaleko inbertitzaile pribatuak dira konpainia sortu berrien partaidea txikiak eskuratzen dituztenak eta kapitalarekin ez ezin haien enpresa arloko esperientziarekin ere hazten laguntzen dieten pertsona fisikoak.

Bi. Foru lege honen ondorioetarako, *bussiness angels*en saretzat hartuko dira inbertitzaile pribatuak biltzeko xedea duten erakundeak, inbertitzaile horien eta proiektu berritzaileak abian jartzeko

baliabideak behar dituzten finantzaketa-eskaeren arteko bitartekaritza-lanak egiten dituztenak. Bitartekaritza-lan hori egiteko, erakunde horiek informazio, zabaltze, azterketa eta aholkularitza zerbitzuak ematen dizkiete kapital eskaintzaile eta eskatzaileei.

23. artikulua. Sareendako laguntzak

Bat. Nafarroako Gobernuak izaera informaleko inbertsio pribatua sustatuko du eta, horretarako, *bussiness angels*en sareak babestuko ditu laguntzak emateko deialdi baten bidez, norgehiagoka araubidean, bai eta Nafarroako aurrekontuetan zehaztuko diren onura fiskalen bidez ere.

Bi. Laguntzen xedea izanen da *bussiness angels*en sare gisa jarduten duten entitateak babestea, enpresa txiki eta ertain berritzaileei erraztasunak emateko sare horietan jarduten duten inbertitzaile pribatuen finantzaketa eskura dezaten.

Hiru. Laguntza jasotzeko, beharrezkoa izanen da hurrengo artikuluan zehazten den direktorioan erregistratzea.

24. artikulua. *Bussiness angels* izeneko izaera informaleko inbertitzaile pribatuen sareen direktorioa

Bat. Nafarroako Gobernuak eskatuko dio Sociedad para el Desarrollo de Navarra sozietate publikoari izaera informaleko inbertitzaile pribatuen sareen direktorio bat sor dezatan. Direktorio hori zuzenduko zaie nortasun juridiko berekia duten eta agerikoak, irisgarriak eta inbertitzaile berriak erakartzeko behar adina aktiboak diren entitateei, profesionalen egitura egokia badute eta haien jardueraren emaitzen aldizkako ebaluazioa egin eta emaitza horien kontu ematen badute.

Bi. Izaera informaleko inbertitzaile pribatuen sareen direktorioak ondoko eginkizunak izanen ditu:

1. Nafarroako Foru Komunitatearen esparruan jarduten duten edo jardun dezaketen izaera informaleko inbertitzaile pribatuen sareen direktorio bat mantentzea.

2. Direktorioan jasotako datuei publizitatea ematea.

3. Izaera informaleko inbertitzaile pribatuen sareen funtzionamendu egokia zaintzea.

4. Beharrezkoak diren ekintzak garatzea izaera informaleko inbertitzaile pribatuen irudia zabaltzeko eta Nafarroako administrazio publikoei neurriak proposatzea haien eskumenen esparruan neurriak

har ditzaten izaera informaleko inbertitzaile pribatuen irudia sustatzeko.

Lehenengo xedapen iragankorra. Nafarroako Kontratuei buruzko Foru Legea aldatzea.

Foru lege hau onetsi eta bi hilabeteko epean, Nafarroako Gobernuak Nafarroako Kontratuei buruzko Foru Legea aldatzeko foru lege proiektu bat aurkeztuko du Nafarroako Parlamentuan, zeinen bidez ezarriko baita Administrazioarentzat obrak edo zerbitzuak egin nahi dituzten enpresek alde aurretiko esperientzia izan beharri buruzko printzipioa soilik kontuan hartuko dela hornikuntzak berezkoak dituen inguruabarrak tarteko beharrezkoa dela ezartzen den kasuetan. Kontratuei buruzko Foru Legearen aldaketa horretan pizgarriak eta puntuazioak ezarriko dira, ekintzaileek sorturiko enpresek obra- eta zerbitzu-kontratuak eskura ditzaten laguntze aldera.

Bigarren xedapen iragankorra. Onura fiskalak dituen "Etxebizitza kontua" izeneko aurrezpen-modalitateari lotutako kopuruen aplikazioa.

2011ko ekainaren 30ean "Etxebizitza kontua" izeneko aurrezpen-modalitateari loturiko dirukopuruak dituzten zergadun nafarrek urtebeteko epea izanen dute desgrabazio fiskalaren xede

diren zenbatekoak norberaren konturako ekintzailletza-jarduerari aplikatu ahal izateko, merkataritza-sozietateak sortuta edo halakoei ekarpenak egin da foru lege honetan ezarritakoari jarraikiz, eta etxebizitza erosteko aurrezpen-modalitate horretan hitzarturiko desgrabazio fiskaletarako eskubidea mantenduta.

Hirugarren xedapen iragankorra. Nafarroako Zerga Agentziak eta Nafarroako Gobernuak, bi hilabeteko epean, azterketa bat egingen dute, ekintzailletza-jardueraren zerga-oinarriaren kontzeptua zehaztu ahal izateko, zerga-oinarri orokorretik eta aurrezkiaren zerga-oinarritik bereizita, errentaren gaineko zergari eta elkarteen gaineko zergari buruzko araudian eta ordainarazpenean modu berezian aintzat hartzeko. Azterlan horretan ezarri behar da ekintzailletza-jardueratik lortutako etekina zehazteko modu objektiboa, foru lege honetan ezarritakoari jarraikiz. Hala, zerga-oinarritzat hartuko da eta ehuneko 10eko karga-tasa aplikatuko zaio gehienez ere, gutxieneko pertsonalari eta familiarrari ez dagokion zatian, kasua bada.

Azken xedapen bakarra. Indarra hartzea

Lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

Foru Lege proposamena, Nafarroako Comptos Ganberari buruzko 19/1984 Foru Legea aldatu eta Nafarroako Parlamentuaren Aurrekontu Bulegoa sortzeari buruzkoa.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko irailaren 1ean egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobe-tzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Parlamentu-talde Popularrak aurkeztu du Nafarroako Comptos Ganberari buruzko 19/1984 Foru Legea aldatu eta Nafarroako Parlamentuaren Aurrekontu Bulegoa sortzeari buruzko Foru Lege proposamena.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 147. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Agintzea Nafarroako Comptos Ganberari buruzko 19/1984 Foru Legea aldatu eta Nafarroako Parlamentuaren Aurrekontu Bulegoa sortzeari buruzko Foru Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin.

2. Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduko 147. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2011ko irailaren 2an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Foru lege proposamena, Nafarroako Comptos Ganberari buruzko 19/1984 Foru Legea aldatu eta Nafarroako Parlamentuaren Aurrekontu Bulegoa sortzeari buruzkoa

ZIOEN AZALPENEA

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobe-tzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 18. artikuluan ezartzen denez, Comptos Ganbera Nafarroako Parlamentuaren menpeko organo gisa jardunen du, eta harenak izanen dira bere eratze-legean eta berau aldarazi edo garatzen dutenetan aurreikusten diren esku-menak.

Comptos Ganbera Nafarroako Parlamentuaren mendeko organo gisa bereizteak ideia bat sendotzen du, alegia parlamentuen eginkizun demokratikoak –horien jatorri historikoa izan zen, hain zuzen, erregeek inposatzen zituzten zergei mugak

eta kontrolak jartzea– eskatzen duela informazio egokia izatea ogasun publikoaren kudeaketari eta administrazioen eta sektore publikoaren antolamenduari eta funtzionamenduari dagokienez, auditoria objektiboaren ereduari jarraikiz ordezkari bidea emateko erabaki berekiak hobeto har ditzaten.

Hori da Comptos Ganberaren eginkizun nagusia, organo fiskalizatzailea den aldetik, hura sortzeko legean hasieratik ezarri zen moduan. Hala ere, egia da erabaki parlamentarioak hartzea gero eta konplexuagoa dela. Zergen, araudien eta aurrekontuen gorakadak eta kudeaketa publikoaren gaineko azterketa tekniko zehatzagoak eta osatuagoak egiteko aukerak –bai finantza arlokoak, bai efizientzia funtzionalari buruzkoak–, kome-nigarri egiten dute legeak berak Comptos Ganberari eginiko mandatua biribiltzea, erakunde horrek judizio-elementu egokia emateko duen gaitasuna hobetze aldera Nafarroako Parlamentuak berezkoak dituen eginkizunetan.

Baina, neurri berean, gizartean ere handitu egin da kudeaketa publikoaren gaineko informazio eta azterketa eskaera, eta botere politikoa da horren ardura duena bere xehetasun guztietan. Gardentasun publikoaren eskaerak zerikusia du politikan jarduten dutenen portaerarekin, baina, oinarrian, eskatzen dena da haiek kontuak ematea haien erabakien eta interes komunak kudeatzeko gaitasunaren gainean, eta hori prozedura arautuen eta aurrekontuetako zuzkiduren bidez egitura-tzen da. Hala, ez da baztergarria herritarren ordezkariak alderatu ahal izatea beren kudeaketa-aren emaitza sortutako itxaropenarekin, eta, horrela, iritzi publikoaren erregimen heldu bati dagokion judizioa ezarri ahal izatea.

Ogasun Publikoari dagokionez, ezinbestekoa da Nafarroako gizarteak, bere legezko ordezkarien bidez, etengabeko informazioa izatea finantzen egoera-orriei eta diru-sarrera eta gastuei buruz, halako moduz non saihesten den kudeatzaileek beraiek dagoen informazioa beren intereserako desitxuratu edo administra dezaten. Are gehiago, Nafarroako aurrekontuen defizita modu kezka-garrian handitu den honetan, eta ezaguna denean gastatzen dena diru-sarreretara egokitzea ezinbesteko betebeharra dela, beharrezkoa da ohiko mekanismoak ezartzea, bidea emate aldera Nafarroako Parlamentuari Parlamentu horrek berak

zehaztasunez ezagut dezan onetsi duen aurrekontua nola ari den betetzen.

Era berean, ezinbestekoa izan beharko litzateke hartzen diren erabakien kostu-onurari buruzko azterketa egitea; izan ere, erabaki horiek finean urriak diren baliabideak konprometitzen dituzte, eta dauden baliabideei ahalik eta erabilera egokiena eman behar zaie. Halako eraginak neurtzeko gaitasun teknikoek, gastu publikoaren ekonomiatik hasita ekonomia errealerara bihurtu arte, ohiko metodologia izan beharko lukete foru erkidegoaren garapen-ereduan. Halako azterketak Comptos Ganberaren lanaren osagarri izan daitezke.

Jakina denez, mendebaldeko zenbait parlamentu aurrekontu bulegoak dituzte, erabakiak hartzen hobetzeko bidea ematen dietenak. Jada ez da ulergarria auditoria publikoa ex-post soilik egitea, azken erabaki politikoak hartu ondotik; aitzitik, komenigarria da auditoria ex-ante ere ezartzea, eskuragarri dagoen informazioa erabili daitekeen neurrian hasieran aurreikusitako bilakaera hobetzeko eta legegintza-lana bera aberasteko.

Beraz, komenigarria da Nafarroako Parlamentuan aurrekontu bulego bat sortzea, bere eginkizuna hobeki betetzeko gaitasuna emanen diona, bereziki erabaki publikoei gardentasuna emateari buruzkoa, bai eta legegintza-lana betetzeari –aurrekontuen eta zergen gainekoa, batik bat– eta Gobernu kontrolatzeari buruzkoak ere. Hala ere, ez da gomendagarria Nafarroako Parlamentuarena soilik izan den aurrekontu bulego bat sortzea, antolamenduzko baliabide berriekin, bi arrazoi tarteko. Bata, Parlamentuaren barruan egitura berri bat sortzeak izan lukeen ezinbesteko kostua. Eta, bigarrena, Comptos Ganberak jadanik baduelako eskumen eta ahalmen hori, aro demokratikoan eratu zenez geroztik dituen eskumenean esparruan. Komeni da, hori bai, legean zehaztea Aurrekontu Bulegoaren izaera berezkoa eta haren jarduerak eta prozedurak finkatzea, eta horixe da 19/1984 Foru Legea garatzeko arau honen xedea.

Arau-hobekuntza honek ezarriko du Comptos Ganberarako Nafarroako Parlamentuaren Aurrekontu Bulegoaren izaera, eta, halaber, eduki zehatza emanen dio eginkizun horri. Zehazki, Comptos Ganberari eginkizun garrantzitsua emanen dio urteko aurrekontua betetzeari buruzko informazio egiazkoa sortzerakoan, hori ezinbestekoa baita Parlamentuak hasiera batean onetsitako zenbatekoen mugimenduak ezagutzeko, eta, hala, disfuntzioak zuzentzen laguntzeko. Horretarako, berriematearen figura sortuko da, zeina baita informazio-laburpen bat, fiskalizazio txosten bat izatera iritsi gabe, non Comptos Ganberak parte hartzen baitu aurrekontu-betetzearen ebaluazio

jarraituan Nafarroako Parlamentuaren organo tekniko eta aholku-emaile gisa.

Orobat, espresuki esleituko zaio Comptos Ganberari Parlamentuaren zenbait erabakiren eragin ekonomikoari buruzko azterketak egiteko eginkizuna, bereziki zergei buruzko erabakiei dagokienez, bai eta azterketa horiek modu zabalean egitekoa ere, kostu-aukerako hautabideen ebaluazioa edota horien garrantzia eta itzulkina, kostu-onurari dagokionez, kontuan hartuta.

Xedapen orokorrak

1. artikulua. Nafarroako Comptos Ganberari buruzko abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legea aldatzen da honen bidez, jarraian agertzen den moduan.

“Artikulu berri bat gehitu da: 9 bis.

Bat. Foru lege honen 9. artikuluko 1.a) idatzatian ezarritakoaren ondorioetarako, Comptos Ganbera izanen da Nafarroako Parlamentuaren Aurrekontu Bulegoa.

Bi. Nafarroako Parlamentuko Aurrekontu Bulegoaren xede nagusia da aldizkako laguntza tekniko ematea Parlamentuari, parlamentu-taldee eta foru parlamentariei, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduan zehazten den moduan, eta bereziki:

a) Informazio eguneratua eta etengabea ematea Nafarroako Gobernuaren eta haren erakunde autonomoen aurrekontuaren betetzeari buruzko fase desberdinen gainean, aurrekontuaren oinarri diren proiektio makroekonomikoak aztertuta eta sistematikoki eta aldizka ebaluatuta aurrekontu-betetzearen egoera, bai eta haren behin betiko likidazioa ere.

b) Legegintzako proposamenen eragin ekonomikoari buruzko azterketak egitea, edozein izanda ere haien irismena eta proposamen-egilea. Horretarako, aztertuko du ekimen horiek aurrekontuan duten eragina, bai eta onetsi nahi diren politika publikoen tekniken, baliabideen eta helburuen kostu-onurari buruzko ebaluazioa ere.

c) Informazio kualifikatua ematea tributu bidezko diru-sarreretan eta bestelako baliabide finantzarioetan eragina duten politika fiskaleko proposamenen eragin ekonomikoari buruz, eragin horren iraupena zehaztuta.

Hiru. Nafarroako Parlamentuko Aurrekontu Bulegoaren ondorioetarako, Comptos Ganberak ondoko agiriak eginen ditu:

a) Berri-emateak, Nafarroako Gobernuaren aurrekontu-betetzearen balorazioari buruzkoak,

ekitaldi bakoitzean zehar. Berri-emate horiek kontuan hartuko dituzte diru-sarreraren eta gastuen egoera-orri errealak, haien bateratzea, aurrekontuen aurreikuspenekiko egokitzea, eta haien bilakera konparatiboa, urte barrukoa eta urte desberdinen artekoa.

b) Txostenak, aurreko idatz-zatiko b) eta c) letretan ezarritakoei

buruzkoak.”

2. artikulua. Nafarroako Comptos Ganberari buruzko abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legea aldatzen da honen bidez, jarraian agertzen den moduan.

“Artikulu berri bat gehitu da: 22 bis.

Bat. Nafarroako Parlamentuaren Aurrekontu Bulegoaren eginkizunei dagokienez, Comptos Ganberak sarbide telematikoak izanen du Nafarroako Gobernuaren diru-sarrera eta gastuen egoera-orri gehituetara, Ekonomia eta Ogasun Departamentuak ezarritako kontabilitateko termino beretan, eta Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduan zehazturiko txosten eta berri-emateak egiteko beharrezkoa den aldizkakotasunarekin.

Bi. Comptos Ganberako lehendakariak ezarriko du Nafarroako Parlamentuari igorri beharreko berri-emateen eredia. Ereduek horrek bete beharko ditu Nafarroako Parlamentuko Aurrekontu Bulegorako aurreikusi diren informazio- eta kontrol-xedetak.

Hiru. Aurrekontu-betetzeari buruzko berri-emateak igorriko dira, halako moduz non bidea emanen baitute uneoro ezagutzeko ekitaldi bakoitzeko aurrekontu publikoen egoera, ezertan galarazi

gabe ondoren datu horiek aztertzea, foru lege honetan ezarritako moduan.

Lehen xedapen iragankorra. Arauen egokitzapena

Foru lege hau onetsi eta hiru hilabeteko epean aldatuko da Nafarroako Parlamentuko Erregelamendua, ondokoak ezartze aldera:

a) Parlamentuko organoei, parlamentu-taldeei eta foru parlamentariei ematen zaien ahalmena, Comptos Ganberak, Nafarroako Parlamentuko Aurrekontu Bulegoa den aldetik, igorri beharreko txostenak eta berri-emateak eskatzeari dagokionez.

b) Eginkizun horren ondorioz sortzen den informazioaren erabilera hobereana ahalbidetuko duten antolamenduzko sistemak.

c) Ekitaldi bakoitzean, aurrekontu-betetzeari buruzko berri-emateak zenbatean behin gutxienez luzatu behar diren.

d) Nafarroako Parlamentuak aztertzen dituen eta aurrekontuetan eragina duten hainbat urtetarako hitzarmen edo proiektuen kopuru gutxienekoa, zeinen ganean Comptos Ganberari kasuko eragin-azterketa eskatu behar baitzaio, horiek aginduzko txosten gisa izapidetze aldera Parlamentuan.

e) Comptos Ganberak nola informatu behar dion Parlamentuari izaera fiskala duten erabakien eragin ekonomikoari buruz.

Bigarren xedapen iragankorra. Indarra hartzea

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hiru hilabetera hartuko du indarra.

Foru Lege proposamena, Nafarroako Gobernuko kideen eta Nafarroako Foru Komunitatearen administrazioiko goi karguen bateraezintasunei buruzko azaroaren 4ko 19/1996 Foru Legea aldatzekoa.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko irailaren 1ean egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobe-teari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeak aurkeztu du Nafarroako Gobernuko kideen eta Nafarroako Foru Komunitatearen administrazioiko goi karguen bateraezintasunei buruzko azaroaren 4ko 19/1996 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 147. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Agintzea Nafarroako Gobernuko kideen eta Nafarroako Foru Komunitatearen administrazioiko goi karguen bateraezintasunei buruzko azaroaren 4ko 19/1996 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin.

2. Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduko 147. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2011ko irailaren 2an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Foru Lege proposamena, Nafarroako Gobernuko kideen eta Nafarroako Foru Komunitatearen administrazioiko goi karguen bateraezintasunei buruzko azaroaren 4ko 19/1996 Foru Legea aldatzekoa

ZIOEN AZALPENEA

Nafarroako Gobernuko kideen eta Nafarroako Foru Komunitatearen administrazioiko goi karguen bateraezintasunei buruzko azaroaren 4ko 19/1996 Foru Legearen 3. bis artikuluan, Goi-kargudunen kargu-uztearen ostean aplikatuko den erregimena eta egoera horretarako aurrez ikusitako sariak arautzen dituen 10/2007 Foru Legean emandako testuaren arabera, ezartzen da Nafarroako Gobernuko kideek, Nafarroako Administrazio Orokorreko zuzendari nagusiek eta Nafarroako Administrazio Orokorren menpeko erakunde publikoetako

zuzendari kudeatzaileek eskubidea dutela, kargua utzi eta hurrengo hilabetetik aurrera, hilero honako prestazio ekonomiko hau jasotzeko: karguak urte bakoitzean finkatuak dituen urteko lansari guztien ehuneko 80aren hamabiren bat. Ordainsari hori karguan emandako denboraren erdiz eskuratuko dute, eta gehienez ere 24 hilabetez.

Ordainsari hori, zeina "kargu-uzteen ordainsari" gisa ezagutzen baita, bateraezina da kopuru horren onuradunari berriro ere kargurako hautatua izanez gero legezkiokoenak jasotzearekin, bai eta sektore publikoan nahiz pribatuan lanpostu finko batean aritzeagatik eskuratzen direnekin ere. Halaber, prestazio hori jasotzea bateraezina izanen da aurreikuspen sozialeko edozein araubide publikoko pentsioekin, aldi bateko lan kontratuetatik lansariak jasotzearekin eta edozein jarduera profesional edo merkataritzakotik eskuratutako diru-sarrerekin.

Arau horren helburua da, agerikoa denez, goi-karguei diru-sarrera batzuk ziurtatzea kargua utzi ondoko bi urteetan, aldi horretan ezin baitute jarduera pribatuetan aritu, karguan zeudenean haien zerikusia duten espedienteetan ebazpenik eman bazuten, ezta laguntza teknikorako, zerbitzuko edo antzeko kontraturik egin ere administrazio publikoekin, eta horrek zaildu egin dezake haien laneratzea.

Hala ere, arauaren idazketak bidea eman du langabezian edo lan merkatutik kanpo geratu ez diren pertsonen ordainsari horiek jaso ditzaten, nahiz eta aukera izan berehala itzultzeko gordeta duten lanpostura edota beste kargu instituzional ordaindu bat betetzen egon.

Hori dela eta, bidezkoa da arau horren aplikazio-esparrua zehaztasun handiagoz mugatzea, haren hasierako helburuari fidelki erantzun diezaion.

Artikulu bakarra. Nafarroako Gobernuko kideen eta Nafarroako Foru Komunitatearen administrazioiko goi karguen bateraezintasunei buruzko azaroaren 4ko 19/1996 Foru Legearen 3. bis artikulua aldatu eta lerrokada bat gehitzen zaio haren 4. idatz-zatiari. Hona testua:

"Ez dituzte jasoko idatz-zati honetan ez aurreko bietan ezarritako ordainsariak edozein administrazio publikotan edota horien menpeko erakundetan lanpostu bat gordeta duten enplegatu publikoek, ez eta Nafarroako Parlamentuko edota

beste edozein instituzio publikotako kide izendatuak izan badira ere, horrek edonolako ordainsariak jasotzea badakar’.

Xedapen indargabetzailea. Arauak indargabetzea.

Indarrik gabe uzten dira foru lege honetan eza-

rritakoari aurka egiten dioten maila bereko edo apalagoko xedapen guztiak.

Azken xedapena. Indarra hartzea.

Foru lege honek indarra hartuko du Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean.

E saila:

JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Jabeldura, osasun-garraioa antolatzeke eta/edo kudeatzeko ereduari buruzkoa.

ASUN FERNÁNDEZ DE GARAIALDE Y LAZKANO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko irailaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Asun Fernández de Garaialde y Lazkano andreak aurkezturiko jabeldura, osasun-garraioa antolatzeke eta/edo kudeatzeko ereduari buruzkoa.

2. Jabeldura hau Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2011ko irailaren 2an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

JABELDURAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Asun Fernández de Garaialde y Lazkanok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoren babesean, ondoko jabeldura aurkezten dio Nafarroako Gobernuo Lehendakartzako, Admi-

nistrazio Publikoetako eta Barneko kontseilari Jiménez jaunari:

Aurreko legegintzaldian zehar, asko eztabaidatu zen osasun-garraioaren antolaketaren eta/edo kudeaketaren egungo ereduari buruz.

Parlamentu honetan zenbait mozio onetsi baziren ere, egoera berean darraigu, hau da, 90eko hamarkadakoa den garraio-eredu batekin, zeinak erreforma eta hobetze handiak behar baititu.

Nafar guztiei eragiten digun gaia denez, eta nahitaezkoa eta lehentasunezkoa den zerbitzu bat denez, parlamentu-talde honek jabeldura aurkezten dio Jiménez jaunari, Nafarroako Gobernuo Lehendakartzako, Administrazio Publikoetako eta Barneko kontseilariari, azal dezan zein den bere departamentuak osasun-garraioarentzat aurreikusten duen antolaketa- eta/edo kudeaketa-eredua, eta zer neurri hartu behar dituen gaur egungo eredu hobetzeko.

Iruñean, 2011ko abuztuaren 3an

Foru parlamentaria: Asun Fernández de Garaialde y Lazkano

Jabeldura, Nafarroako Gobernuak oro har bakegintzari eta normalizazio politikoari buruz duen jarrerari buruzkoa.

BILDU-NAFARROA PARLAMENTU-TALDEAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko irailaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeak aurkezturiko jabeldura, Nafarroako Gobernuak oro har bakegintzari eta normalizazio politikoari buruz duen jarrerari buruzkoa.

2. Jabeldura hau Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2011ko irailaren 2an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

JABELDURAREN TESTUA

Maiorga Ramirezek, Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko eledunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 181. artikulua eta hurrengo babesean, honako jabeldura hau aurkeztu dio Nafarroako Gobernuari, Osoko Bilkuran eztabaida dadin.

Bakea lortzeko une historikoa bizitzen ari gara herri honetan. ETAren su-etena eta normalizazio politikoaren arloan egiten ari diren aurrerapenak gure historiako une giltzarria osatzen ari dira.

Ibili beharreko bidea luzea da oraindik, ez da dudarik. Eta bide horretan ez da faltako eragozpenik eta oztoporik, baina bidearen bukaerak ekarriko duena da indarkeria ororen amaiera, adiskidetzeta eta biktima guztientzako ordaintza. Bizi nahi dugu lur batean non ez den indarkeriarik egonen, non errespetatu egingen diren giza eskubide, eskubide zibil eta politiko guztiak; lur batean non bide baketsu eta demokratikoen bitartez posible izan den edozein proiektu politiko lortzea.

Aukera horren aurrean, talde politiko eta erakunde ororen betebeharra eta ardura da inplikatzeta hainbeste irrikatzen dugun bakea lortze aldera. Abian jarritako prozesuak badu nazioarteko bitartekaritza, prestigio handikoa, baina Euskal Herriko erakundeek eredu izan behar dugu eta sendo lan egin behar dugu helburu hori gogoan.

Hilabeteotan, Euskal Herriko agertokia errotik aldatu da: hasi indarkeria oro arbuizteari dagokionez eginiko aurrerapenetatik –arbuio hori behar dute ezaugarri indar politiko orok, salbuespenik gabe– eta atentatuen nahiz estortzioaren etenera arte. Edozein modutan, badira oraindik ere egin beharreko urratsak harik eta indarkeria guztiak, salbuespenik gabe, behin betikoz desagertu arte.

Horrela, beharrezkoa da aukera politiko guztiak bermatuta izatea askatasunezko parte-hartze politikoa, eta beharrezkoa da, era berean, aukera politiko horien guztien arteko elkarriketa-prozesu bat abian jartzea, gatazkaren konponbide politikoa lortze aldera.

Helburu hori lortze aldera, hau da, indarkeria mota ororen amaiera eta gatazkaren konponbide integrala, politikak eta erakundeek aktibatu beharra daukate bakearen zerbitzura. Erakundeek, dagoeneko abian jarria den prozesu hau arrakastaz burutu dadin, zeregin oso garrantzitsua dute; nahitaezkoa da denon lana eta konpromisoa.

Horiek horrela, parlamentari honek jabeldura hau aurkeztu dio Nafarroako Gobernuari jakiteko bakegintzari eta normalizazio politikoari buruz oro har duen jarrera; eta, zehatzago, zer jarrera duen indarkeriarik gabeko eta sakontze demokratikoko agertoki bat lortzeko herri honek bizi duen aukera historikoari dagokionez.

Iruñean, 2011ko abuztuaren 12an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Jabeldura, jakiteko zer arrazoi izan zituen Nafarroak 600 milioiko defizita sortzeko 2010ean zehar eta zer ondorio izanen dituen horrek gastu publikoaren politikan.

SANTIAGO CERVERA SOTO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko irailaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Santiago Cervera Soto jaunak aurkezturiko jabeldura, jakiteko zer arrazoi izan zituen Nafarroak 600 milioiko defizita sortzeko 2010ean zehar eta zer ondorio izanen dituen horrek gastu publikoaren politikan.

2. Jabeldura hau Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2011ko irailaren 2an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

JABELDURAREN TESTUA

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularreko foru parlamentari eta eledun Santiago Cervera Soto jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko jabeldura aurkeztu dio Nafarroako Gobernuko lehenbiziko lehendakariorde eta Lehendakartzako, Administrazio Publikoetako eta Barneko kontseilariari, zeinaren erantzuna Osoko Bilkuran jaso nahi bailuke:

2008tik hona, Nafarroako Foru Komunitatea aurrekontu-defizit nabarmenak izaten ari da, gastu publikoaren maila diru-sarreraren mailara ez egokitzearen ondorioz. Hori dela-eta, Nafarroak aurre egin beharreko zorpetze publikoa asko igo da: biztanle bakoitzeko kalkulaturik, Espainiako autonomia erkidegoetako handienetakoa da.

Berriki jakinarazi zenez, 2010eko ekitaldiaren itxierarako aurreikusitako defizita 600 milioi euro-

koa da, hots, urte honetarako onetsitako aurrekontuaren % 13,60 egiten du. Nafarroa inoiz ezagutu gabe zegoen halako kaudimengabezia-maila eskandaluzkoa eta hain defizit handia –aurrekontu bakar batean sortua–.

Gaur egun Nafarroako Gobernuko lehenbiziko lehendakariorde denak sinatu zuen 2009ko azaroaren 19an zifra horiek ekarri dituen aurrekontu-akordioa, eta gastua % 2,5 igotzea onartu zuen, nahiz eta jabetzen zen diru-sarrerak % 10 baino gehiago ari zirela erortzen. Akordio hori sinatu ondoren, adierazi zuen aurrekontuak "ase" uzten zituela beren nahiak, eta aurrekontu "moderatua" zela, kontsentsuaren emaitza eta beharrezkoa Nafarroa krisi-egoeratik atera zedin.

Inbestidurako eztabaidan, orain Nafarroako Gobernuko lehendakaria denak ez zituen Nafarroako Parlamentuaren aurrean zehaztu nahi izan bere agintaldirako aurreikusitako kontsolidazio fiskalaren zifrak, ezta defizit publikoaren murrizketari buruzkoak ere, nahiz eta parlamentu-talde honek hori egiteko eskatu zion.

Arrazoi bi horiengatik, Gobernuko lehenbiziko lehendakariordeari jabeldura hau aurkeztu diogu, azal dezan Nafarroako Parlamentuaren aurrean zer arrazoi izan zituen Nafarroak 600 milioiko defizita sortzeko 2010ean zehar, zer ondorio izanen dituen horrek gastu publikoaren politikan, defizita murrizteko zer plan pentsatzen duen gauzatzea Nafarroako Gobernuak eta, era berean, egoera honi dagokion erantzukizun politikoa har dezan bere gain.

Iruñean, 2011ko abuztuaren 29an

Eleduna: Santiago Cervera Soto

Mozioa. Horren bidez, Espainiako eta Nafarroako gobernuak premiatzen dira kondenatu eta gaitzets ditzaten 1936ko uztailaren 18ko altxamendu militarra eta diktadura frankista.

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko irailaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Espainiako eta Nafarroako gobernuak premiatzen baitira kondenatu eta gaitzets ditzaten 1936ko uztailaren 18ko altxamendu militarra eta diktadura frankista.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2011ko irailaren 2an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Gaurko egunez, 2011ko uztailak 18, hirurogeita hamabost urte betetzen dira Armada II. Errepublikako gobernu demokratikoaren aurka altxa zeneetik. Altxamendu hartan, "Zuzendariak", hau da, Mola jeneralak, bai eta Nafarroako zenbait indar ekonomiko, mediatiko, eklesiastiko eta politikok ere, protagonismo erabakigarria izan zuten. Gaur den egunean, ez Espainiako Estatuak, ezta Nafarroako Gobernuak ere, ez dute oraindik, erakunde gisa, altxamendu hura ez kondenatu, ez gaitzetsi,

eta altxamendu hark oinarri eta ondorio izan zuen indarkeria jarraituaren biktimek ere ez dute izan biktima gisa merezi duten ezagutza instituzionala. Horrenbestez, Nafarroa Bai parlamentu-taldeak honako mozio hau aurkezten du Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

1. Nafarroako Parlamentuak premiatzen ditu, batetik Espainiako Gobernua eta bestetik Nafarroako Gobernua, kondenatu eta gaitzets ditzaten, formalki, 1936ko uztailaren 18ko altxamendu militarra eta diktadura frankista.

2. Nafarroako Parlamentuaren ustez, erabat deusez deklaratu behar dira, eta ondorio guztietarako deklaratu ere, epaitegi bereziek emaniko epai errepresibo guztiak, epaitegi militarrenak izan edo bestelako ordenatakoenak, hala gerra garaian nola, geroztik, diktadura garaian, eta, horretarako, premiatzen du legezko prozedura egokiaren bidez erabaki dadila erabateko deusezetasunaren deklarazioa eraginkorra dela ondorio guztietarako.

3. Nafarroako Parlamentuak biktima izaera ezagutzen die 1936ko uztailaren 18ko altxamendu militarrek eta horren ondorengo diktadurak eragindako indarkeriaren ondorioak sufritu zituzten guztiak, eta ezagutza eta ordaintza instituzionala izateko eskubidea dutela deklaratzeko du, zio edo arrazoi politikoko indarkeria orenen biktima guztiek bezala.

Iruñean, 2011ko uztailaren 18an

Eleduna: Patxi Zabaleta Zabaleta

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da itzul dezan zergadunek eta enpresek PFEZa eta BEZa direla-eta aurreratu duten dirua.

BILDU-NAFARROA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko irailaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita itzul dezan zergadunek eta enpresek PFEZa eta BEZa direla-eta aurreratu duten dirua.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2011ko irailaren 2an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Maiorga Ramírez Errok eta Bakartxo Ruiz Jasok, Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko eledunek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 195. artikulua eta hurrengo babesean, honako mozio hau aurkeztu dute, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Lukurreriak eta finantza-espekulazioaren arautze ezak sorrarazitako krisi ekonomikoaren bi ondorio negatibo nagusiak dira langabeziaren maila, batetik, eta likidezia eskuratzeko zailtasuna, zeina beharrezkoa baita kontsumoa dinamizatzeko eta ekonomiak beharrezkoa duen industria- eta inbertsio-jarduna ahalbidetzeko. Hori dela-eta, erakunde publikoek krisi ekonomikoa ordainarazi behar diete krisi hori eragin dutenei, eta Administrazioetik neurriak inplementatu behar dituzte zuzentzeko langabezia-maila hain altua eta likidezia falta, pertsonena, autonomoena eta enprena.

Horregatik guztiagatik, erabat desegokia eta onartezina da Administrazioak PFEZaren eta

BEZaren itzulketarekin egiteko agindu duena, hau da, zerga horiek direla-eta osotara zegokiena baino diru gehiago Administrazioari ordaindua zutenei itzuli beharrezkoa atxikitzea.

Egia da Administrazioak, legez sei hilabeteko epemuga duenez itzulketak egiteko, azken unera arte itxaron dezakeela horretarako, baina gaur egungoa bezalako egoera ekonomiko batean, non likidezia-falta den problema nagusietako bat herritarrentzat nahiz autonomo eta enpresa txikiarentzat, erabat onartezina da Administrazioak zergadunei, justu aurten, inoiz baino beranduago ordaintzea haiei dagokien dirua; eta hori, hara zer kasualitatea!, bankuentzat izanen da kasu askotan onuragarri, interes handiagoak kobratuko baitizkiete dirua banku-maileguei aurre egiteko behar duten herritarrei.

Aurkeztu ditugun parlamentu-galderen erantzunak jaso bitartean, badirudi, kanpaina-hasieran itzulketak normal egiten hasi baziren ere, Gobernuak berriki eman duen agindua izan dela itzulketak horiek sine die atxikitzea; eta horrek azalpen publikoa behar du, eta justifikazio bat ere bai, ez baita eman.

Horrenbestez, parlamentu-talde honek, egiaztatua baitu zenbait pertsona, autonomo eta enpresa txikiaren haserrea eta haiekiko bidegabekeria, krisi ekonomikoari aurre egin behar baitiote, eta Nafarroako Administrazio Publikoa ez dadin bihurtu beharrezkoa dugun suspertze ekonomikorako oztopo, honako erabaki proposamen hau aurkeztu dugu, eztabaidatu eta bozka dadin:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du itzul dezan zergadunek eta enpresek PFEZa eta BEZa direla-eta aurreratutako dirua; hain zuzen ere, hilabeteko epean gehienez ere, kasuan kasuko zerga aitortpena erregistratu zutenetik.

Iruñean, 2011ko uztailaren 20an

Foru parlamentariak: Maiorga Ramírez Erro eta Bakartxo Ruiz Jaso

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da konpromiso irmoa, argia eta lehentasunezkoa izan dezan osasun publikoarekin.

BILDU-NAFARROA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko irailaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita konpromiso irmoa, argia eta lehentasunezkoa izan dezan osasun publikoarekin.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2011ko irailaren 2an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Bakartxo Ruiz Jasok eta Maiorga Ramírez Errok, Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko eledunek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 195. artikulua eta hurrengo babesean, honako mozio hau aurkeztu dute, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Burbuila espekulatibo finantzarioa lehertuta sortu den krisi ekonomikoko egoera honetan –bereziki bankuek eragin zuten burbuila hori–, krisi hori eragin duen sektoreak jarduteko zer muga izanen dituen arautu beharrean, eta bilatu beharrean zer formula erabil daitezkeen egoeraren arduradunek erantzun dezaten eta ondorioak ordain ditzaten, hainbat gobernu eta talde politiko kontserbadore eta eskuindarrek aukera baliatu dute “Ongizatearen Estatu” deiturikoaren oinarriko zutabe direnak higatzeko, hala nola hezkuntza eta osasuna.

Horregatik, parlamentu-talde hau biziki kezakata dago, Nafarroako Gobernuak ez baitu adierazi zer jarrera duen “osasun arloko koordaintetari” dagokionez. Formula horren bidez, baztertu egin nahi da kalitateko osasun zerbitzu bat doan eta modu unibertsalean eskuratzeko eskubidea ezartzen duen printzipioa, eta, modu horretan, halaber, osasun-sistema eta zerbitzu pribatuek aurrera egi-teari bide ematen zaio.

UPNren gobernuak, azken urteotan, oztopo izan dira gure osasun-sistema publikoaren garapenerako (plan onkologikoa geldituta dago, haurdunaldiaren borondatezko etendurarik ez da egin nahi izan, medikuntzako fakultatearen sorrera oztopatu egin da, langileen arloko politika negargarria izan da...), eta, horregatik, legegintzaldi hasiera honetan, argi eta garbi adierazi beharra dago, hinki-hankarik gabe, zein den jarrera osasun-arloan, hiru alderdiri dagokienez hain zuzen: osasun-sistema publikoaren garapena, koordaintetari buruzko jarrera eta NUPen medikuntzako ikasketak jartzea. Ebazpen proposamenak horregatik ditu, hain justu, hiru puntu.

Aipamen bat egin nahi diogu, azkenik, Parlamentuan lan-talde batek hilabete askoan aztertu zuen gai bati, gaur egun ez baitakigu benetako zer konpromiso jaso zituen UPN-PSN Gobernuak gairi buruz: NUPEko medikuntza fakultatea. Begibistakoa da, fakultate hori abian jartzeko behar den bakarra borondate politikoa dela. Izan ere, baliabideak badaude, eskaria badago eta NUPEk adierazi du, dagoeneko, ez dagoela inongo arazorik eta oso komenigarria litzatekeela fakultate hori martxan jartzea. Beraz, funtsean, eztabaida ideologikoa da, eta sistema publikoarekiko konpromisoa eta sistema horretan uste sendoa izatea dakar berekin. NUPen medikuntzako fakultatea jarriko balitz, begi-bistakoa litzateke sinergiak sortuko liratekeela ikerketaren arloan, zerbitzuaren kalitatea hobetu egingen litzatekeela, osasun-sistema publikoak giza-baliabide gehiago izanen litzatekeela eskura, eta, hortaz, Nafarroako herritar guztientzat izanen litzatekeela onuragarri. Eskuinaren iritzi politikoak errespetatzen ditugu; horien apustua da eremu pribatuari ematea eskusibotasuna eta eremu hori baliabide pribatuekin elikatzea. Hala ere, adierazi behar dugu, gaur egun, iritzi horiek ez direla nagusi Nafarroako gizartean.

Hori dela eta, gure parlamentu-taldeak honako erabaki proposamena aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Erabaki proposamena:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du konpromiso sendoa, zalantza gabe eta lehentasunezkoa izan dezan osasun-sistema publikoarekin, garatuz eta hobetuz, horretarako, zerbitzuaren kalitatea eta zabaltasuna, baita haurdunaldiaren borondatezko etendurari dagoki-

onez, ikerketa arloei dagokienez eta baliabide ekonomikoei, materialei eta giza-baliabideei dagokienez ere.

2. Nafarroako Parlamentuak adierazten du errefusatu egiten dituela "koordainketa" deiturikoaren moduko formulak osasun-sistema publikoa finantzatzeko, formula horrek baztertu egiten baititu osasun-sistemaren doakotasunaren, berdintasunaren eta unibertsaltasunaren printzipioak, eta osasun-sistema gizarte-kalitatearen funtsezko zutabe bat dugu.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du berehala has ditzan beharrezkoak diren izapideak, eta jar ditzan behar diren baliabideak, NUPEk beharrezkoak diren urratsak egin ahal ditzan medikuntzako fakultatea lehenbait lehen gauzatu dadin.

Iruñean, 2011ko uztailaren 19an

Foru parlamentariak: Bakartxo Ruiz Jaso eta Maiorga Ramírez Erro

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentua premiatzen da ETA talde terrorista kondena dezan.

PARLAMENTU-TALDE POPULARRAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko irailaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Parlamentu-talde Popularrak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentua premiatzen baita ETA talde terrorista kondena dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2011ko irailaren 2an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularrak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuarekin bat, ondoko mozioa aurkeztu du, Nafarroako Parlamentua premiatzen duena ETA talde terrorista kondena dezan, eztabaidatu eta bozkatzeko:

Nafarroako herritarrek, maiatzaren 22an, gure erkidegoko legebiltzarrean eta udaletan ordezkari izanen zituztenak hautatu zituzten. Erakundeok osatzen dituztenak, hautesleek modu demokratiakoan –eta, beraz, modu libre eta arduratsuan– eman dieten konfiantzaren hartzaille baitira, behartuta daude ordenamendu juridikoak ezartzen ditu-

en lege- eta arau-printzipioak babestera, betetzera eta betearaztera.

Baina aurrekoaz haratago, ordezkari publikoen betebeharra da, halaber, zaintzea mundu modernoak eta mendebaldeko demokraziek gizartea antolatzeke darabiltzaten moduek berezkoak dituzten oinarrizko printzipioak. Printzipio horiek ezartzen dituzte Bizikidetzak baketsua, lagun hurkoaren ideien errespetua, pertsonen askatasun individualaren eta kolektiboaren bermea eta batak bestearen eskubide pertsonalen nahiz oinarrizko eskubideen aitortpena.

Horregatik, nafarrek jakin beharra daukate Nafarroako Parlamentuko kideek, beraiek bezala, lehentasunezko kezka dutela terrorismoa kondanatzea, ETAko terroristen biktima izan direnei haiek eragin dieten mina ordaintzea, benetako bakea ezartzea, oinarri duena pertsonen eta beren ideien askatasun egiazkoa, eta, azken batean, zintzoki, aho batez eta sendoki mespretxatzea ETAREN jardura kriminala eta bere kidekoak diren erakunde eta pertsonena nahiz bere basakeriaren konplize direnena. Soilik jarrera hori finkatzen bada gure gizartean eta beste ezeren aurretik jarri beharreko etika unibertsaleko printzipio horiek defenditzen baditugu burutu ahal izanen dugu gure gizartearen eraikuntza eta lortu ahal izanen dugu nahitaezko bake askatasunezkoa.

Espanian eta Nafarroan, terrorismoak duen amaiera posible bakarra ETAREN desagertzea da: bere jardura suntsitzea eta bere borondatea makurraraztea izan behar ditugu helburu. Onartezinak dira trikimainak, onartezinak amore emate-

ak, onartezinak bere asmo politiko, sozial edo historikoak. Beren egiturak baldintzarik gabe desegitea eta justiziaren aurrean kontuak ematea da ETAko terroristek eta beren kolaboratzaile koldarrek gugandik espero dezaketen bide-amaiera. Aurkakoa bidegabekeria zilegitzea izanen litzateke, krimena babestea eta terrora helburu politikoak lortzeko baleko bide gisa aitortzea.

Espanian eta gure Nafarroa maitean indarrean dugun sistema demokratikoak irmotasuna, indarra eta duintasuna eskatzen du, sistema baliatuz sistema suntsitu nahi dutenen aurrean. Nafarroako Parlamentuaren eskumena da, horrenbestez, argi eta garbi aldezea gizarte hau osatzen dugunon arteko bizikidetzak baketsua eta berdinean aldezea askatasunaren oinarriko printzipioak, gorago adierazi ditugunak.

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularrak honako erabaki proposamena aurkeztu du:

Nafarroako Parlamentuak, Osoko Bilkuran bilduta:

1.- Espresuki kondenatzen du ETA talde terroristak gauzaturiko 947 hilketetako bakoitza.

2.- Gaitzetsi egiten du ETAk eta bere konplizeek herritar nafarrei eta gainerako espainiar guztiei inposatu dien terrorrezko eta minezko historia justifikaezina; bereziki, beren ekintza kriminalen zuzeneko biktima izan diren pertsonen inposatu diena.

3.- Exijitzen du ETArekin desegite baldintzagarria, armak eman ditzatela eta beren kideak Justiziaren eskura utziak izatea.

Iruñean, 2011ko uztailaren 21ean

Foru parlamentaria: Eloy Villanueva Cruz

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da amatasuna benetan babesteari buruzko plan bat ezar dezan.

PARLAMENTU-TALDE POPULARRAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko irailaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Parlamentu-talde Popularrak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita amatasuna benetan babesteari buruzko plan bat ezar dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2011ko irailaren 2an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularrak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuarekin bat, amatasuna babesteari eta emakume haurduna informatzeari buruzko ondoko

mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Espaniako Konstituzioko 39. artikulua ezartzen du, politika sozial eta ekonomikoa gidatzeko printzipioen barruan, botere publikoek segurtatzen dutela familiaren babes sozial, ekonomiko eta juridikoa, eta, halaber, seme-alabek babes osoa izanen dutela, berdinean izanik legearen aurrean, edozein dela haien filiazioa, eta orobat amek, edozein dela haien egoera zibila.

Jardunbide politikoaren betebeharrak bereziki zaintzea zer egoerak jar dezaket jokoan pertsonaren osotasuna eta haren gaineko iritzia soziala. Ikuspegi horretatik, emakumearentzako laguntzak, haurdunaldiak eta amatasunak berezkoak dituen zirkunstantziak bizitzen ari denean, helburu saihestezina eta lehentasunezkoa izan behar luke gizarte-politikaren barruan. Oinarri hartzen badugu jardunbide politikoaren azken arrazoiak pertsona dela jotzen duen ikuspegia, emakume haurdunari laguntzarako baliabide desberdinak jarri behar zaizkio eskura; izan ere, egoera horretan emakume batera gertatzen zaizkio osasunaren arloko beharrak, gizarteratzearen ingurukoak, arlo juridikokoak, hezkuntzakoak

eta amatasunaren beraren balioa aintzat hartzearen gainekoak.

Abortuari buruzko 2/2010 Legeak –Alderdi Popularrak eta Nafarroako Gobernuak errekurtsoa jarrita daukate Konstituzio Auzitegian– amatasunaren beraren banalizazioa proposatzen du, aurreuposatzen baitu jaio ez denaren bizitzaz xeda deza-kegula, eta abortuak egiteko ezarritako prozeduran ikusten da abortuaren alternatibak ez direla batere kontuan hartzen. Abortua ezin da jo osasun prestazio soiltzat; funtsean, porrot pertsonala eta soziala da. Beraz, nahitaezkoa da abortuak prebenitzeko estrategiak ezartzea, modua egon dadin abortuak prebenitzeko eta horien kopurua ahalik eta gehiena murrizteko. Horrela, berariazko neurriak dago artikulatu beharra, Nafarroako Gobernuaren eskumenekoak direnak, abortuaz bestelako alternatibak erraztuko dituztenak eta, edonola ere, abortua egitea planteatzen ari den emakumeari behar bezain informazio osoa eta pertsonalizatua emanen diotenak.

Xedapenak

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari premiatzen du, Nafarroako Gobernuari eta Lehendakariari buruzko abenduaren 3ko 14/2004 Foru Legearen arabera berezkoak dituen eginkizunen aplikazioa dela-eta, honakoak egin ditzan:

1. Ezar dezala, sei hilabeteko epean, amatasunaren babesteko plan bat, honakoak helburu izanen dituena:

a) Sustatzea gizarteak amatasunarentzako laguntzak balora ditzala eta horiekin kontzientziatuta egon dadila, eta sustatzea, halaber, osatze bidean denaren bizitzeko eskubidearen babesa, hain zuzen gizarte kohesioaren eta ekinbide publikoaren funtsezko elementu gisa.

b) Amatasunaren babeserako gizarte-politikak integratzea, eta arlo administratibo guztien balizko koordinazioa lortzea.

c) Prebentzio- eta hezkuntza-ekintzak ezartzea arlo honetan, eboluzio-etapa guztietan, eta ekintza horiek bereziki izan ditzatela neurri informatibo eta formatiboak haurrentzat eta nerabeentzat.

d) Zaintzea eta sustatzea arlo honetako politika asistentzialen gaineko informazioa eskuratzeko eskubidea.

e) Haurdun diren emakumeak gizarteratzeko eta laneratzeko neurriak eta programak sustatzea, bermatze aldera emakume horien autonomia pertsonala eta ondarezkoa, ahulezia- edo bazterkeria-egoeran daudenean, eta, bereziki, adingabeak diren emakume haurdunen kasuan.

f) Haurrak hazteko eta hezteko laguntza-neurriak sustatzea, guraso-ardurak gauzatzeko zailtasun bereziak dituzten familientzat.

g) Harrera eta adopzioa sustatzea, alternatiba eraginkorrak izan daitezzen eta emakume haurdunari aukera eman diezaioten haurdunaldiarekin jarraitzeko.

2. Nafarroako Gobernuak gida bat prestatu eta etengabe gaurkotuko du, non haurdunaldirako beharrezkoa eta erabilgarria jotzen den informazioa bilduko baita, eta gida horrek gizarte-babeserako dauden baliabideen erreferentzia xeheak jasoko ditu –Espainia osorakoak, Nafarroakoak eta tokian tokikoak, hala publikoak nola pribatuak–, eta boluntario-sareen berri ere emanen du. Gidak bereziki jasoko ditu aurreikusita dauden laguntza ekonomikoak, etxebizitzaren arloko laguntzak eta laneratzeko daudenak. Gidak aukera emanen du identifikatzeko zer zentro, prestazio eta laguntza publiko dituen eskura emakume haurdunak haurdunaldia frogatzen duen unetik, bai eta zer bidetik lor ditzakeen lana, prestakuntza, gizarteratzeko gutxieneko errentak edo bestelako gizarte-prestazio batzuk, eta interes orokorreko zer entitatek ematen duten helburu horiek lortzeko laguntza.

3. Sexu- eta Ugalketa-osasunari eta Haurdunaldiaren Borondatezko Etendurari buruzko martxoaren 3ko 2/2010 Legeak Nafarroan izanen duen aplikazioari dagokionez, Nafarroako Gobernuak ziurtatuko du haurdun dagoen emakume orori informazio pertsonalizatua, nahikoa eta behar bezain ulergarria emanen zaiola bere haurdunaldia bukatzeko eskura ditzakeen laguntza juridiko eta ekonomikoei buruz, publikoak edo pribatuak izan, kontuan hartuta zein diren bere ezaugarri pertsonalak, sozioekonomikoak eta kulturalak. 16 urte baino gutxiagoko adingabe emantzipatu gabeegi dagokienez, eginkizun hori modu ardurasuan egingen da, adingabearen guraso, legezko ordezkari edo zaintzaileen orientabidearekin.

Iruñean, 2011ko uztailearen 27an

Foru parlamentaria: Ana Beltrán Villalba

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da kontzertazio sozialeko prozesuan sar ditzan autonomoen kolektiboaren erakundea eta ANEL.

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko irailaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita kontzertazio sozialeko prozesuan sar ditzan autonomoen kolektiboaren erakundea eta ANEL.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2011ko irailaren 2an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko eledun Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Aste honetan berean egin da Nafarroako Gobernuaren, Nafarroako Enpresaburuaren Konfederazioaren, UGTren eta CCOOren arteko lehen bilera, Nafarroaren egoera ekonomikoa oro har eta gure erkidegoko enplegua bereziki aztertzeko. Bilera bukatutakoan, Yolanda Barcina andreak adierazi du pausoak emanen direla Nafarroako V. Enplegu Plana taxutzeko, malguagoa izan dadin eta modu eraginkorragoan jorra ditzan etorkizuneko erronkak.

Bilera horrek jarraipena eman dio, Yolanda Barcinaren aldetik, Miguel Sanzen lehendakaritzapean UPNk aldeztu duen kontzertazio sozialeko ereduari. Kontzertazio sozial bat zeinean enpresen aldetik CEN baizik ez dagoen, eta sindikatuen aldetik UGT eta CCOO soilik. Ongi deritzogu horiek bertan egoteari. Ezin duguna ontzat jo da horiek izatea bertan dauden bakarrak.

Enpresen esparruan bada gutxienez ere beste talde garrantzitsu bat, autonomoena, ordezkaturik ez dagoena, hain gutxi CENek ordezkaturik. Nafarroan 45.000 autonomotik gora dago. Ekonomia sozialak ere ez du ordezkazarik, eta ia 10.000 lanpostu ditu.

Sindikatuak dagokienez, oraintsu jakin dugu zein den lau sindikatu nagusiek lortu duten ordezkartza. Egia da UGTk eta CCOOk lortu dutela lehen eta bigarren tokia $-29,55$ eta $25,39$ hurrenez hurren-, baina ez da aiantzi behar hirugarren eta laugarren tokian ELA eta LAB daudela, eta horiek ere ordezkartza oso adierazgarria dutela $-20,91$ eta $13,14$ hurrenez hurren-. ELA eta LABen arteko baturak UGTren ordezkartza aise gaintzen du. UGT eta CCOOren baturak ordezkartza 55 egiten du. Gonbita ELAri eta LABi ere luzatuz gero, langileen ia 90 daude ordezkartuta. Datu horiek ez dira koiunturazkoak; aitzitik, Nafarroako urte askotako mapa sindikalaren isla dira.

Gure ustez, ez dago arrazoi onargarririk, euskal kutsua duen ororen aurkako uko erabatekoak harago eta CEN, UGT eta CCOOren alde sortutako interes ekonomiko eta politikoak iraunarazteaz harago, autonomoen taldearen bazterketari eusteko eta ELAk eta LABek ordezkartutako langileen bazterketari eusteko.

Yolanda Barcinak, eta harekin batera UPNk eta PSNk, aukera paregabea dute gauzak beste modu batera egin nahi dituztela erakusteko, batez ere hain sentibera den esparru batean, nola den kontzertazio soziala.

Hori dela-eta, parlamentu-talde honek ondoko erabaki proposamena aurkeztu du:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du kontzertazio sozialaren prozesuan sar ditzan, CEN, UGT eta CCOOekin batera, ELA eta LAB sindikatuak, autonomoen kolektiboan ordezkazarik handiena duen erakundea eta ANEL, ekonomia sozialeko enpresen ordezkari nagusia baita.

Iruñean, 2011ko uztailaren 28an

Eleduna: Patxi Zabaleta Zabaleta

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da behar diren urratsak egin ditzan Banca Cívica-ren akzioen titulartasuna Nafarroako Gobernura pasa dadin.

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko irailaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita behar diren urratsak egin ditzan Banca Cívica-ren akzioen titulartasuna Nafarroako Gobernura pasa dadin.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2011ko irailaren 2an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko eledun Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Banca Cívica orain dela gutxi atera da burtsara. Aldez aurretik, gainontzeko aurrezki kutxa fundatzaileek bezala, Nafarroako Kutxak bere aktibo eta pasibo guztiak ekarri zituen entitate berrira, eta trukean entitate berriaren akzio-pakete bat jaso zuen; hasiera batean, paketea kapitalaren % 29,1i zegokion, eta burtsara irten ostean, % 15,28ri.

Nafarroako Kutxa, hartara, edukirik gabe gelditu da, halako moduz non bere organo kudeatzaileek ez baitute beste zereginik Banca Cívicatik iristen diren dibidenduak –handi-handiak izanen ahal dira– kudeatzea baino, pentsatzekoa baita "zuk aukeratu, zuk erabaki" filosofiari eutsiko diotela, eta Banca Cívicaren sorrera-prozesuan egin ahal izan diren sozietate-itunak betetzen direla zaintzea baino. Bidenabar, parte-hartze hori mantentzea

ala ez komeni den hausnartu beharko dute, bai eta, kasua bada, desinbertsioa egiteko une egokiari buruz ere.

Guk argi daukagu, beraz, Banca Cívicaren % 15,28 Nafarroako Kutxaren jabetzakoa dela. Arzoa Nafarroako Kutxaren titulartasuna da. Denok uste dugu ezen, bai lehen eta bai orain ere, Nafarroako Kutxa nafar guztien aktibo bat dela. Halere, juridikoki, Nafarroako Kutxa ez da zuzenean Nafarroako Gobernuaren jabetzakoa, baizik eta fundazio batena. Argudio horrek balio izan du, eta emaitzak hor dira, Nafarroako Kutxari buruzko erabakiak ez zitezen Parlamentuan hartu, baizik eta Parlamentutik kanpo.

Argudio hori ezin da jada baliagarria izan. Iberdrolaren akzioekin gertatzen den bezala –Sodenaren jabetzakoak dira–, Banca Cívicaren akzioen titulartasuna, eta, hortaz, haren etorkizunari buruzko erabakiak eta sor litezkeen dibidenduen kudeaketa Nafarroako Gobernuaren kudeaketaren arloan sar daitezten lortu behar dugu, eta, horrenbestez, Nafarroako Parlamentuaren kontrolaren esparruan sar daitezten.

Hori bereziki garrantzitsua da une honetan, Nafarroako Gobernuaren kontuek zailtasun-uneak bizi dituztelako diru-sarrerei dagokienez eta muga zorrotzak gastuei dagokienez eta aurrekontu-saldoaren kontrola hain handia delako. Ez dauka zentzurik nafar guztion aktibo bat, eskubide ekonomikoak sortzen dituen, multzoan ez sartzeak.

Eta ezin dira aitzakia gisa erabili nafar gizartearentzat sortzen dituen gizarte-ekintza eta prestazioak. Prestazio horiek ez dago zertan ukitu.

Hori dela-eta, parlamentu-talde honek ondoko erabaki-proposamena aurkeztu du:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du behar diren urratsak egin ditzan Banca Cívicaren akzioen titulartasuna Nafarroako Gobernura edo haren partaidetzako sozietateetako batera pasa dadin.

Iruñean, 2011ko uztailearen 28an

Eleduna: Patxi Zabaleta Zabaleta

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak exijitzen du Espainiako Gobernuko lehendakariak proposatutako konstituzio-erreforma ez dadila tramita Gorte Nagusien legegintzaldi honetan.

IZQUIERDA-EZKERRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko irailaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak exijitzen baitu Espainiako Gobernuko lehendakariak proposatutako konstituzio-erreforma ez dadila tramita Gorte Nagusien legegintzaldi honetan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2011ko irailaren 2an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

José Miguel Nuin Morenok, Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldearen izenean, Legebiltzarreko Erregelamenduarekin bat, honako mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozka dadin:

Abuztuaren 23an Diputatuen Kongresuan izaniko eztabaidan, Espainiako Gobernuko lehendakariak Espainiako Konstituzioaren aldaketa urgente bat egiteko ekimena iragarri zuen, defizit publikoari muga bat ezartzearen.

Konstituzio-erreforma bat, berez, garrantzi politiko handia duen zerbait da, eta eztabaida publiko ahalik eta zabalena eskatzen du. Konstituzioak berak ezhohiko zurruntasuneko prozedurak ezartzen ditu: gehiengo indartuak eta herritarren erreferendum lotesle bidezko parte-hartzea, nahitaezkoa batzuetan, eta beste batzuetan Gorte Nagusietako bi biltzarretako bateko kideen hamarren batek eskatzen badute egina.

Proposatzen denaren moduko konstituzio-erreforma batek dakarrena da muga bat jartzea botere publikoen jardun ekonomikoari eta, beraz, herritarrek har ditzaketan erabakiei –herritarrek dira, ordezkari dituzten erakunde bidez, subiranotasunaren titularrak– eta, zehazki, beste muga gehi-

garri bat jartzea Nafarroako Foru Komunitateko eta gainerako autonomia erkidegoetako autogobernu-gaitasunari. Gizarte ongizatea garatzeko aukerari muga nabarmenak ezartzea dakar orobat.

Izan ere, aldaketaren bidez Konstituzioko arauen maila eman nahi zaio, zorpetze publikoaren arloan, jarrera ideologiko neoliberalari.

Alegia, eskuinaren eta ezkerraren arteko oreka- eta kontsentsu-testu bat izateari utziko lioke 1978ko Konstituzioak oinarri-oinarrizko politika ekonomikoaren arloan, eta eskuinaren jarrera ideologikoa onartuko luke soilik.

Onartezina da, demokraziaren ikuspuntutik, Espainiako Gobernuko lehendakariak sustatzen duen ekimen hori urgentziazko prozedura baten bitartez egitea: hamabost egunetan burutu daiteke, herritarren arteko eztabaidarik gabe, noiz eta biltzarrak desegitekotan direnean hauteskondeak aurreratu direlako –hauteskondeetarako deialdia egin gabe dago oraindik, baina azaroan eginen direla iragarri da–, beren hauteskunde-programetan halakorik jaso ez zuten indar politikoen eskutik hain zuzen ere, eta herritarrei erreferendum bidez kontsulta zuzena egin gabe.

Konstituzio-erreforma ekimena Gorte Nagusietako bi biltzarretan irakurketa bakarreko prozedura bereziaren bidez izapidetzea –zuzenketak egiteko aukerarik gabe, alegia– ez dago justifikatuta eta ez da antolamendu juridikoarekin ondo ezkontzen. Prozedura hori aurreikusita dago proiektuaren edo proposamenaren izaerak hala jokatzeko eskatzen duenerako edo horren formulazioaren soiltasunak horretarako bidea ematen duenerako, baina oraingo honetan ez da inolaz ere halakorik gertatzen. Prozedura hori baliatzeak parlamentu-erregelamenduen xedeari iruzur egitea ekarriko luke.

Hain munta handiko konstituzio-aldaketa bat herritarren esku utzi beharko litzateke betiere; hurrengo legegintzaldirako utzi beharko litzateke, eta horren alde dauden indar politikoei hurrengo hauteskunde orokorretarako hauteskunde-programetan sartu beharko lukete, eta erreferenduma egin beharko litzateke betiere.

Hori dela-eta, ondoko erabaki proposamena aurkeztu dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak exijitzen du Espainiako Gobernuko lehendakariak proposatu duen konstituzio-erreforma ez dadin legegintzaldi honetan izapidetu Gorte Nagusietan; hortaz, Espainiako Gobernuko lehendakaria eta proposamenarekin bat datozen Kongresuko nahiz Senatuko parlamentu-taldeak premiatzen ditu hurrengo hauteskunde orokorrak egin arte atzera dezaten proposamenaren izapidetzea.

2. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua eta Kongresuko nahiz Senatuko parlamentu-taldeak premiatzen ditu konstituzio-erreforma hori, baldin eta Gorte Nagusietan onesten bada, herritarren erreferendum bidezko erabaki loteslearen esku utz dezaten.

Iruñean, 2011ko abuztuaren 25ean

Foru parlamentaria: José Miguel Nuin Moreno

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da plan bat aurkez dezan, Nafarroako defizit publikoa murrizteari eta kontsolidazio fiskalari buruzkoa.

PARLAMENTU-TALDE POPULARRAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko irailaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Parlamentu-talde Popularrak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita plan bat aurkez dezan, Nafarroako defizit publikoa murrizteari eta kontsolidazio fiskalari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2011ko irailaren 2an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularrak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoarekin bat, ondoko mozioa aurkeztu du, eztabaidatu eta bozkatzeko. Honen bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroaren zor publikoa murrizteari eta kontsolidazio fiskalari buruzko plan bat aurkez dezan.

2008tik hona, Nafarroako Foru Komunitatea aurrekontu-defizit nabarmenak izaten ari da, gastu publikoaren maila diru-sarreraren mailara ez egokitzearen ondorio. Hori dela-eta, Nafarroak aurre egin beharreko zorpetze publikoa asko igo da: biztanle bakoitzeko kalkulaturik, Espainiako autonomia erkidegoetako handienetakoa da.

Berriki jakinarazi zenez, 2010eko ekitaldiaren itxierarako aurreikusitako defizita 600 milioi eurokoa da; hots, aurtengo urterako onetsitako aurrekontuaren % 13,60 egiten du. Nafarroa inoiz ezagutu gabe zegoen halako kaudimengabezia-maila eskandaluzkoa eta hain defizit handia –aurrekontu bakar batean sortua–. Orobat jakinarazi zen 243 milioi euro inguruko defizita aurreikusten zela 2011rako; alegia, krisia hasi zenez geroztik gertatu den bigarren zenbatekorik handiena.

Defizit publikoa modu kronikoan hain zifra altuetan mantentzeak auzitan jartzen du Nafarroaren bideragarritasun instituzionala; izan ere, mugatu egiten du Nafarroaren gaitasuna, bere autogobernuari zor zaizkion eskumenak eta eginkizunak modu zuhur eta arduratsuan betetzeko. Politikaren ikuspegitik, iruzurrezko eta bezerokeriazko eredu batean murgiltzea dakar, gardentasunaren eta ardurakidetzaren printzipioak faltsutzen dituelako. Ekonomiaren ikuspegitik, berriz, zor publikoak drainatu egiten du enpresek eta partikularrek finantza-merkatuara ateratzeko duten gaitasuna, eta krisitik ateratzeko osagai kaltegarria da.

Inbestidurako eztabaidan, orain Nafarroako Gobernuko lehendakaria denak ez zituen Nafarroako Parlamentuaren aurrean zehaztu nahi izan bere agintaldirako aurreikusitako kontsolidazio fiskalaren zifrak, ezta defizit publikoaren murrizketari buruzkoak ere, nahiz eta parlamentu-talde honek hori egiteko eskatu zion Lehendakaria ez zen gai izan horri buruzko zenbaki bat ere emateko, nahiz eta hori den gure erkidegoko ekonomia publikoaren lehen arazoa, lehen aipatu bezala eragina duelako politikan nahiz ekonomian.

Hortaz, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

1. Nafarroaren zor publikoa murrizteari eta kontsolidazio fiskalari buruzko plan bat aurkez dezan Nafarroako 2012rako aurrekontu orokorreari buruzko eztabaida egin aurretik; horren bidez, legegintzaldi honetan gaur egungo aurrekontu-desoreka larria desagerrarazteko epe zehatzak ezarriko dira, eta hainbat arinen "defizit gabeko" aurrekontuak ziurtatzeko jarduketan gaineko konpromisoa hartuko da.

2. Hartara, aurrekontu-magnitude guztietan kontabilitate nazionalako irizpideak ezarriko dira

berehala, eta, Comptos Ganberak eskatzen duenarekin bat, aurrekontuz kanpoko finantza-konpromisoak aintzat hartuko dira.

3. Halaber, informazio publikoa etengabe gaurkotzeko sistema iraunkor bat ezarriko da, hiru hilera behin eduki ahal izate aldera betetze-mailaren edo gertatu den aurrekontu-desbideraketaren berri.

Iruñean, 2011ko abuztuaren 29an

Eleduna: Santiago Cervera Soto

E saila:

JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Galdera, inbestidura prozesuaren ondotik eginiko kontsulta-txandan zeinek hartuko zuten parte erabakitzeko jarraitutako irizpideei buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko irailaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, inbestidura prozesuaren ondotik eginiko kontsulta-txandan zeinek hartuko zuten parte erabakitzeko jarraitutako irizpideei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2011ko irailaren 2an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean,

ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernu-ko lehendakari Yolanda Barcina Angulo andreak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Inbestidura prozesuaren ondotik, Barcina andreak bilera-txanda bat egin du zenbait eragile-ekin. Galdera hau erregistroan sartu zen egunera arte, ondokoekin bildu da: UGT, CCOO eta CEN, Foru Parlamentuko lehendakaria, Gobernuaren ordezkaria, NUPeko errektorea, Justizia Auzitegi Nagusiko lehendakaria, Jeneral Komandante Militarra eta Iruñeko alkatea.

Hartara, erakunde batzuekin bai eta beste batzuekin ez biltzeko erabakia ikusita, parlamentari honek ondokoa galdetu nahi du, Osoko Bilkuran ahoz erantzuteko:

- Zer irizpide baliatu du Gobernu-ko lehendakari Yolanda Barcinak, inbestidura prozesuaren ondoko bilera-txandako solaskideak hautatzeko?

Iruñean, 2011ko abuztuaren 2an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, jakiteko ea Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak noiz egin behar duen toxikazio, neke edo arrisku bereziko egoeren gaineko azterlana.

ASUN FERNÁNDEZ DE GARAIALDE Y LAZKANO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko irailaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Asun Fernández de Garaialde y Lazkano andreak aurkeztutako galdera, jakiteko ea Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak noiz egin behar duen toxikazio, neke edo arrisku bereziko egoeren gaineko azterlana.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2011ko irailaren 2an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Asun Fernández de Garaialde y Lazkano andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Parlamentu honek onetsitako martxoaren 17ko 6/2011 Foru Legean jasotzen denez gero, Osasunbideak, Laneko Arriskuen Prebentzioaren Zerbitzuaren bitartez, toxikazio, neke edo arrisku bereziko egoeren gaineko azterlana egin behar du Osasunbideko lanpostu guztiei dagokienez. Noiz egingen du Osasunbideak azterlan hori?

Iruñean, 2011ko abuztuaren 3an

Foru parlamentaria: Asun Fernández de Garaialde

Galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuak zer jarrera duen Espainiako Gobernuko lehendakariak iragarritako konstituzio-aldaketari buruz.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko irailaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuak zer jarrera duen Espainiako Gobernuko lehendakariak iragarritako konstituzio-aldaketari buruz.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2011ko irailaren 2an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

• Espainiako Gobernuko lehendakari José Luis Rodríguez Zapaterok Espainiako Konstituzioaren aldaketa iragarri baitu, zer jarrera hartuko du Nafarroako Gobernuak autogobernua eta finantza-autonomia babeste aldera?

Iruñean, 2011ko abuztuaren 24an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, PFEZaren eta BEZaren itzultze-prozesua eten izanaren arrazoia-ri buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko irailaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, PFEZaren eta BEZaren itzultze-prozesua eten izanaren arrazoia-ri buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua aginduta-koari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2011ko irailaren 2an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera

hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

1. Ekimen hau erregistratu den egunean, Nafarroako Gobernuak agindu du PFEZaren eta BEZaren itzultze-prozesua eteteko. Zer dela eta?

2. Ekimen hau erregistratu den egunean, zein da herritarrei eta enpresei PFEZa eta BEZa direla-eta itzuli gabeko kopurua?

3. Aurreikuspenen arabera, noiz amaituko da PFEZaren itzultze-prozesua?

4. Egia al da Nafarroako Gobernuak jarraibideak eman dituela 1200 eurotik gorako itzulketa guztiak geldiarazteko?

5. Nola liteke Gobernuaren aritzea herritarrek, autonomoek eta enpresa txikiek beraiei dagokien likidezia eskuratzeko epea luzatzen? Hori izanen al da zerga-kudeaketari buruzko jardunaren ezau-garri nagusia?

Iruñean, 2011ko uztailaren 20an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, Nafarroako Kutxak Banca Cívican duen partaidetzari buruzkoa.

MANU AYERDI OLAIZOLA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko irailaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Manu Ayerdi Olaizola jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Kutxak Banca Cívican duen partaidetzari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua aginduta-koari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2011ko irailaren 2an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Manuel Ayerdi Olaizolak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hauek egin dizkio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

2011ko uztailaren 21ean, Banca Cívica burtsan estreinatu zen. Akzio berriak inbertsiogile berriei esleitu ondoren, Nafarroako Kutxak Banca Cívican duen partaidetza murriztu egin da, % 29,1etik % 15,28ra, hain zuzen.

Horrenbestez, jakin nahi dut:

1.- Zein da Nafarroako Gobernuaren asmoa partaidetza horri dagokionez?

2.- Nafarroako Kutxak hasi berri dugun legegintzaldi osoan % 15,28ko partaidetza mantentzearen aldekoa da Gobernuak?

3.- Ba al da konpromisorik Banca Cívicako

bazkide gisa erabaki horiek baldintzatzen dituenik?

Iruñean, 2011ko uztailaren 21ean

Foru parlamentaria: Manuel Ayerdi Olaizola

Galdera, diru-sarreraren eta gastuen exekuzioari buruzko hiruhilekoko egoera-orriaren argitalpenari buruzkoa.

AMAYA ZARRANZ ERREA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko irailaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Amaya Zarranz Errea andreak aurkeztutako galdera, diru-sarreraren eta gastuen exekuzioari buruzko hiruhilekoko egoera-orriaren argitalpenari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua aginduta-koari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2011ko irailaren 2an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularreko foru parlamentari Amaya Zarranz Erreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ohorea du ondoko galderak aurkezteko Nafarroako Gobernuko bigarren lehendakariorde eta Ekonomia eta Ogasuneko kontseilari Álvaro Miranda Simavillari, idatziz erantzun diezaion:

Duela hilabete batzuk prentsari eginiko adierazpen batzuetan, Nafarroako Gobernuko bigarren lehendakariorde eta Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak konpromisoa hartu zuen hiru hilabetean behin argitaratzeko Nafarroako Gobernuaren menpeko kontabilitatearen diru-sarreraren eta gastuen egoera-orriak.

Politika Fiskal eta Finantzarioaren Kontseiluak ere ildo bereko gomendio bat onetsi du autonomia erkidegoetarako. Horren bidez, haiek premiatzen ditu argitara dezaten aurrekontuen betetze-maila zehatza ekitaldi bakoitzean zehar, gardentasuna

eta kontrol politikoaren maila areagotu eta aurrekontuetako kaudimen graduari buruzko informazio erreal emate aldera.

Hala ere, orain arte ezin izan da eskuratu informazio hori, lehendakariordeak esandakoa ez baita bete, inolako justifikaziorik bete gabe. Agerikoa denez, aurrekontuen betetze-mailari dagokion informazioa ez da argitaratu ekitaldian zehar, kontabilizatu ahala, eta horrek Nafarroako Gobernuaren kudeaketa ekonomikoaren opakotasunari eustea dakar.

Horretaz gain, parlamentu-talde honek kexa ugari jaso ditu PFEZaren likidazioaren ondoriozko itzulketen atzerapena dela-eta. Antza denez, atzerapenaren arrazoia izan dira orain arte Foru Ogasunean ezagutu gabeko diruzaintzako tentsioak. Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak, duela gutxi eginiko adierazpen batzuetan, uko egin zion aurrekontuaren betetze-mailaren egungo zenbatekoak zehazteari, esanez "hori abuztuan ikusiko" zela.

Ez da batere onargarria Nafarroako Gobernuak ez ematea haren egoera-orri ekonomiko-finantzarioari buruzko datu errealak, eta informazioa dosifikatzea, propaganda gisa erabiltzeko, edota Nafarroako Parlamentuari eta gizarteari, oro har, kontu publikoen egoeraren gaineko egiazko informazioa ukatzea ere.

Horiek horrela, hona galderak:

– Ekonomia eta Ogasun Departamentuak mantentzen al du asmoa aurrekontu-ekitaldi bakoitzean hiru hilabetean behin argitaratzeko diru-sarreraren eta gastuen egoera-orria, duela zenbait hilabete Politika Fiskal eta Finantzarioaren Kontseiluak gomendatu bezala eta kontseilariak konpromisoa hartu bezala?

– Zergatik orain arte ez da horrela egin?

– Noiz izanen da eskuragarri, hiru hilabetetik behin, Nafarroako Gobernuaren menpeko diru-sarreraren eta gastuen betetze-egoerari buruzko informazioa?

Iruñean, 2011ko uztailaren 26an.

Foru parlamentaria: Amaya Zarranz Errea

Galdera, jakiteko ea zergatik ez diren jakinarazi gastu eta diru-sarrera fiskalek bigarren hiruhilekoan izandako bilakaerari buruzko datuak.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko irailaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, jakiteko ea zergatik ez diren jakinarazi gastu eta diru-sarrera fiskalek bigarren hiruhilekoan izandako bilakaerari buruzko datuak.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2011ko irailaren 2an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

• 2011ko uztailaren 27an, Nafarroako Gobernuak ez ditu jakinarazi gastu eta diru-sarrera fiskalek bigarren hiruhilekoan izandako bilakaerari buruzko datuak. Zergatik?

Iruñean, 2011ko uztailaren 27an.

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, jakiteko asmorik ba ote den ondareari buruzko zerga ezartzeko legegintzaldi honetan.

ANA BELTRÁN VILLALBA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko irailaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana Beltrán Villalba andreak aurkeztutako galdera, jakiteko asmorik ba ote den ondareari buruzko zerga ezartzeko legegintzaldi honetan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2011ko irailaren 2an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularreko foru parlamentari Ana Beltrán Villalba, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoren babesean, ohorea du ondoko galdera aur-

kezteko Nafarroako Gobernuko bigarren lehendakariorde eta Ekonomia eta Ogasuneko kontseilari Álvaro Mirandari, idatziz erantzun diezaion:

Lehen lehendakariorde eta Lehendakariorde kontseilari Roberto Jiménez jaunak adierazi du, UGTren egoitzara eginiko bisita instituzionalean, ondarearen gaineko zerga berriro ezartzearen aldekoa dela. Hala ere, Gobernuko lehendakari Yolanda Barcina andrearen inbestidura hitzaldian ez zen halakorik aipatu.

Hori dela eta, bigarren lehendakariorde eta Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak ondoko galderak erantzutea nahiko nuke:

– Ados al zaude lehen lehendakariorde eta Lehendakariorde kontseilari Roberto Jiménez jaunak ondarearen gaineko zerga berriro ezartzearen aldekoa dela esanez eginiko adierazpenekin?

– Nafarroako Gobernuak ba al du asmorik zerga hori legegintzaldi honetan ezartzeko?

Iruñean, 2011ko uztailaren 27an

Foru parlamentaria: Ana Beltrán Villalba

Galdera, jakiteko ETBko bi kanalak ikusi ahal izatea zenbat kostatuko litzatekeen.

MANU AYERDI OLAIZOLA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko irailaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Manu Ayerdi Olaizola jaunak aurkeztutako galdera, jakiteko ETBko bi kanalak ikusi ahal izatea zenbat kostatuko litzatekeen.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2011ko irailaren 2an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Manuel Ayerdi Olaizolak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hauek egin dizkio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Azkenaldian askotan aipatu dira LTD ezarri ondoren hala nahi duten nafarrek dituzten zailtasunak, ETB1 eta ETB2 kateak beste edozein kate bezala ikusteko. Halaber, eztabaidatu da zein izanen litzatekeen konexio horren kostua eta nori

dagokion ordaintzea. Hala, entzun dugu kostua milioi bat eurokoa dela.

Hori dela eta, parlamentari honek hauxe jakin nahi du:

Zehazki zenbat diru kostatuko litzaioke Nafarroako Gobernuari hala nahi duten Nafarroako herritar guztiek bi telebista kate horiek ikusi ahal izatea?

Iruñean, 2011ko uztailaren 28an

Foru parlamentaria: Manuel Ayerdi Olaizola

Galdera, Urdiain-Altsasuko industrialdearen egoerari buruzkoa.**MANU AYERDI OLAIZOLA JAUNAK EGINA**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko irailaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Manu Ayerdi Olaizola jaunak aurkeztutako galdera, Urdiain-Altsasuko industrialdearen egoerari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2011ko irailaren 2an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Manuel Ayerdi Olaizolak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hauek egin dizkio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Urdiain-Altsasuko industrialdearen egoerari buruzko galdera

Industrialdea bi sektoretan banatuta dago: S-1 sektorea Urdiain dagokio eta 647.139 metro koadro ditu, eta S-2 sektorea Altsasuri dagokio eta 290.550 metro koadro ditu. Maiatzaren 11ren hasieran iragarri zen S-1 sektoreko 169,345 metro koadroko lehen fasea urbanizatzeko lanak esleitu zirela.

Jada hasitako S-1 sektoreko lehen faseari dagokionez, hau jakin nahi dut:

1. Urdiain-Altsasuko industrialdeko S-1 sektoreko lehen fasea urbanizatzeko lanak egiteko kontratua Harinsa Navasfalt,S.A. enpresari esleitu zitzaion. Zein da kontratu horretan ezarritako lanen amaiera-data?

2. Nasuinsak edo Nafarroako Gobernuak ba al dute abian den lehen fase horretan instalatzeko interesaturik dauden enpresen berri?

S-1 sektoreko gainerako zatiari dagokionez, hura urbanizatzeko lanak oraindik ez baitira lizitatu, hau jakin nahiko nuke:

1. Aurreikuspenen arabera, noiz hasiko dira S-1 sektoreko gainerako zatia urbanizatzeko lanak?

2. Nafarroako Gobernuaren ustez, zer eragin izan dezakete obren hasieran udalez gaindiko plan sektorialaren eta Urdiaingo desjabetzapen-proiektuaren aurka aurkeztutako errekurtsioek?

S-2 sektoreari dagokionez, hura urbanizatzeko lanak oraindik ez baitira lizitatu, hau jakin nahiko nuke:

1. Altsasuko Udalak, herrian dagoen lurzoru industrialaren faltaren aurrean, agertutako interesa ikusirik –2010eko azaroan adierazpen bat onetsi zuen–, noiz hasiko dira S-2 sektorea urbanizatzeko lanak?

2. Nafarroako Gobernuaren ustez, egiten ari den azterketa arkeologikoak zer eragin izan dezake aipatu obren hasieran?

Iruñean, 2011ko abuztuaren 1ean

Foru parlamentaria: Manuel Ayerdi Olaizola

Galdera, baliabideak osasun pribatura bideratzeari buruzkoa.

BAKARTXO RUIZ JASO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko irailaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bakartxo Ruiz Jaso andreak aurkeztutako galdera, baliabideak osasun pribatura bideratzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2011ko irailaren 2an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Bakartxo Ruiz Jasok, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

1. Urtean zenbat baliabide bideratzen dira osasun-zerbitzu pribatura? Azken hamar urteetako datuak jaso nahi ditut, baliabideak jasotzen dituzten ospitale edo kliniken arabera xehakatur.

2. Zeintzuk dira gehien bideratzen diren zerbitzuak eta zergatik?

3. Azterlanik egin al da zerbitzu horiek eskaintzeko inbertsio publikoa egitearen bideragarritasunari buruz?

4. Izan al da kapital pribatuaren parte-hartzerik Osasunbidearen esparruan eraikitzen/hornitzen ari diren azpiegitura berrietan, bereziki Lezkairuko Bereizmen Handiko Laguntza-zentroan eta Ikerketa Biomedikoaren Zentroan?

5. Zentro horien kudeaketari dagokionez, izan al da parte-hartze pribaturik? Hala bada, zer neurritan eta zein baldintzatan?

6. Zein izaten ari da uda honetan Osasunbideko ordezkapenen estaltze-maila (bajak, oporrak, baimenak, ordu sindikalak...)?

7. Zein da Nafarroako Foru Komunitateko Odol eta Ehun Bankua izeneko entitate publikoa sortzeari buruzko 20/2010 Foru Legearen egungo garapen-maila? Aurreikusitako jardueren egutegia jaso nahi dut.

8. Zein da Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko Osasun Mentaleko Zuzendaritzaren egitura organikoa ezartzen duen abenduaren 13ko 21/2010 Foru Legearen egungo garapen-maila? Aurreikusitako jardueren egutegia jaso nahi dut.

Iruñean, 2011ko abuztuaren 3an

Foru parlamentaria: Bakartxo Ruiz Jaso

Galdera, 2012tik 2015era bitarteko urteei dagokien Nafarroaren Programazio Ekonomikoa egiteko eta onesteko prozesuari buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko irailaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, 2012tik 2015era bitarteko urteei dagokien Nafarroaren Programazio Ekonomikoa egiteko eta onesteko prozesuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2011ko irailaren 2an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

- Zertan da 2012tik 2015era bitarteko urteei dagokien Nafarroaren Programazio Ekonomikoa egiteko eta onesteko prozesua?

Iruñean, 2011ko abuztuaren 4an.

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, diru-sarrera fiskalei eta eginiko aurreikuspeni buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko irailaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, diru-sarrera fiskalei eta eginiko aurreikuspeni buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2011ko irailaren 2an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Ekimen hau izapidetu den egunean:

1.- Zein da diru-sarrera fiskalen emaitza eta zer alde dago emaitza horren eta Nafarroako Gobernuak aurreikusitakoaren artean?

2.- Zeintzuk dira egin diren kalkulu-akatsak izan litezkeen aldeak izateko?

3.- Aurrekontu horiek egiteko erabili diren formula zehatzak ematea nahiko nuke, koiuntura-datu zehatzekin.

Iruñean, 2011ko abuztuaren 8an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, Enplegu Plana egiteari eta onesteari buruzkoa.

JOSÉ FERNANDO IBILTZIETA OLLETA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko irailaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Fernando Ibiltzieta eta Olleta jaunak aurkeztutako galdera, Enplegu Plana egiteari eta onesteari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2011ko irailaren 2an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Fernando Ibiltzieta Olletak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egin du, Nafarroako Gobernuko Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumeneko kontseilariak idatziz erantzun diezaion:

2011n amaituko da IV. Enplegu Plana, eta haren emaitzak kontraesankorrak dira. Kontuan hartuta talde eta alderdi guztien hauteskunde pro-

grametan garrantzi handia eman zaiola enplegua sortzeari, eta uste dugulako lehentasunezkoa eta funtsezkoa dela Parlamentuko talde guztien artean adostutako enplegu plan berezi bat abian jartzea berehala, foru parlamentuari honek ondokoa jakin nahi du:

1) Zer epe dauzka aurreikusita Nafarroako Gobernuak Enplegu Plana prestatu eta onesteko?

2) Zer irizpide hartuko dira kontuan hura prestatzeko?

3) Nafarroako Gobernuak jarraitu behar al du zenbait eragilerekiko agertzen duen bazterketa-politikarekin, orain arte ELA eta LAB sindikatuarekin egin duen moduan?

4) Zein akats atzeman dira eta zer ondorio atera dira aurreko enplegu planetatik, ikusirik azken urteotan langabeziak izan duen gorakada?

5) Zenbat diru, ekarpen arruntak eta bereziak kontuan hartuta, bideratuko da plan berri horretara, kontuan hartuta haren ezaugarriak –premiazkoa, lehentasunezkoa eta talde politiko eta eragile sozial guztiek eskatutakoa–, eta aurrekontuetako zer kontusailen kargura?

Iruñean, 2011ko abuztuaren 9an

Foru parlamentaria: Fernando Ibiltzieta Olleta

Galdera, San Frantziskoko liburutegi publikoak eman behar dituen zerbitzuei buruzkoa.

TXEMA MAULEÓN ECHEVERRÍA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko irailaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Txema Mauleón Echeverría jaunak aurkeztutako galdera, San Frantziskoko liburutegi publikoak eman behar dituen zerbitzuei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2011ko irailaren 2an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeko foru parlamentari Txema Mauleón Echeverría, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau idatziz erantzutea eskatzen du:

Jakin dugunez, abuztuaren 16tik San Frantziskoko liburutegi publikoa itxita dago, obrak direla eta. Horrenbestez, hauxe jakin nahi dugu:

1. Liburutegia zaharberritzeko lanen iraupena, eta liburutegia berriz irekitzeko data, aurreikuspen arabera.

2. Kondestablearen Jauregian ematen den behin-behineko zerbitzuaren ezaugarriak (jendea hartzeko ordutegia, ematen diren zerbitzuak eta behin-behineko itxi baino lehen ematen zirenekiko alderaketa, obrek dirauten bitartean liburutegiko langileek izanen duten egoera, eta abar).

3. Liburutegiko zaharberritze-lanak amaitutakotan han ematen diren zerbitzuak eta itxi baino lehen ematen zirenekiko alderaketa: jendea hartzeko ordutegia, eskuragarri izanen diren funtsak, zerbitzuaren ardura duten langileen egoera eta erantzukizuna, eta Nafarroako Gobernuaren eta Iruñeko Udalaren erantzukizuna liburutegiaren funtzionamendua dela eta.

Iruñean, 2011ko abuztuaren 19an

Foru parlamentaria: Txema Mauleón Echeverría

Galdera, oinarrizko errentaren kudeaketan eta ordainketan gertatzen ari diren atzerapenei buruzkoa.

TXEMA MAULEÓN ECHEVERRÍA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko irailaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Txema Mauleón Echeverría jaunak aurkeztutako galdera, oinarrizko errentaren kudeaketan eta ordainketan gertatzen ari diren atzerapenei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2011ko irailaren 2an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeko foru parlamentari Txema Mauleón Echeverriak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek idatziz erantzutea eskatzen du:

Duela gutxi jakin dugu atzerapen handiak izaten ari direla oinarrizko errentaren kudeaketan eta ordaintzetan, eta, hala, eskaera aurkeztu denetik 45 eguneko epea –hori baita legez ezarritakoa– erraz gainditzen dela. Hori dela eta, ondoko galderak idatziz erantzutea nahiko nuke:

1. 2011n eta galdera hau egin den egunera arte izandako oinarrizko errentaren eskaera kopurua.

2. Onartutako eskaeretan legez ezarritako epea noraino bete den, oinarrizko errenta onuradunei ordaintzeari dagokionez (uste dugunez eskaera bakoitza desberdina izanen dela, datuak

gutxi gorabeherako denboraren arabera multzoka daitezke).

3. Oinarrizko errentaren kudeaketaren ardura duten langileen azken urteetako bilakaera, bai Nafarroako Gobernuaren esparruan, bai udal gizarte zerbitzuen arloan, eta haien lan-egoera (behin-behineko langileen portzentajea, langile finkoen portzentajea, eta abar).

4. Nafarroako Gobernuak zer neurri hartu behar ditu legea betetzeko, oinarrizko errenta epe barruan kudeatzeari dagokionez?

5. Nafarroako Gobernuak aldaketarik sustatuko al du legegintzaldi honetan oinarrizko errentaren arloan?

Iruñean, 2011ko abuztuaren 19an

Foru parlamentaria: Txema Mauleón Echeverría

Galdera, jakiteko ea Nafarroako Gobernuak lagundu ote duen Gazteriaren Mundu Jardunaldien antolaketan.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko irailaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, jakiteko ea Nafarroako Gobernuak lagundu ote duen Gazteriaren Mundu Jardunaldien antolaketan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2011ko irailaren 2an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaiola:

1.- Nafarroako Gobernuak lagundu al du Gazteriaren Mundu Jardunaldien antolaketan? Hala bada, jakin nahiko nuke nolakoa izan den laguntza hori eta aurrekontu xehakatuak.

2.- Nafarroako Gobernuak parte hartu al du, zuzenean edo ordezkariaren baten bidez, jardunaldi horien kariatara antolatu diren ekitaldietan?

3.- Nortzuk izan dira gonbidatuak eta nortzuk joan dira ekitaldi horietara?

4.- Ekitaldi horietan, Nafarroako ordezkariak azaldu al du bere kezka Eliza, tenplu, hilerri eta bestelako finkak jabetza-erregistroan isilpean inskribatuta, Nafarroan egiten ari den espoliazioa dela-eta?

5.- Zer gastu ekarri dio Nafarroako diru publikoari Nafarroako Gobernuak Gazteriaren Mundu Jardunaldien inguruan izandako jardunak? Informazio xehakatuak jaso nahiko nuke, kontzeptuen eta jarduketaren arabera.

6.- Gasturik izanez gero, zein kontusailen kargura egin da?

Iruñean, 2011ko abuztuaren 22an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, jakiteko ea Nafarroako Gobernuak izan ote zuen Espainiako armadak Nafarroako lurraldean eginiko ekitaldiaren berri.

BAKARTXO RUIZ JASO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko irailaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bakartxo Ruiz Jaso andreak aurkeztutako galdera, jakiteko ea Nafarroako Gobernuak izan ote zuen Espainiako armadak Nafarroako lurraldean eginiko ekitaldiaren berri.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2011ko irailaren 2an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Bakartxo Ruiz Jasok, Legebiltzarreko

Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

1.- Ezaguna denez, Nafarroako herritarrek ez dute atxikipen handirik sentitzen Espainiako armadarekiko. Horren haritik, jakinarazi al zitzaion Nafarroako agintariei Nafarroako lurraldean mila militar baino gehiagoren parte-hartzearekin ekitaldi militar bat zergatik egin zen?

Nafarroako Gobernuak ba al daki mila militar horietatik zenbat diren nafarrak?

Ekitaldi horrek izan al zuen Nafarroako Gobernuaren laguntzarik?

Laguntza horren ondorioz egin al da gasturik? Informazio xehaketa nahiko nuke, aurrekontuko zein kontusailen kargura egin den adierazita.

Iruñean, 2011ko abuztuaren 22an

Foru parlamentaria: Bakartxo Ruiz Jaso

Galdera, Nafarroako Administrazio Publikoan dagoen burutza kopuruari buruzkoa.

VÍCTOR RUBIO MARTÍNEZ JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko irailaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Víctor Rubio Martínez jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Administrazio Publikoan dagoen burutza kopuruari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2011ko irailaren 2an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Víctor Rubio Martínezek, Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

1.- Nafarroako Administrazio Publikoko burutza kopuruak, urtez urte, 2005etik hasita gaur egunera arte.

2.- Burutzak kentze aldera iragarritako Administrazioaren berregituratze-prozesua zein egoeratan dagoen.

3.- Gaur egun ba al da bere kargura langilerik ez duen burutzarik? Horien kopuruak eta zein departamentuak diren jakin nahiko nuke.

Iruñean, 2011ko abuztuaren 23an

Foru parlamentaria: Víctor Rubio Martínez

Galdera, mendekotasun-egoeran daudenentzako laguntzak ordaintzeari buruzkoa.

TXEMA MAULEÓN ECHEVERRÍA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko irailaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Txema Mauleón Echeverría jaunak aurkeztutako galdera, mendekotasun-egoeran daudenentzako laguntzak ordaintzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2011ko irailaren 2an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeko foru parlamentari Txema Mauleón Echeverría, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau idatziz erantzutea eskatzen du:

Duela gutxi jakin dugu abuztuan atzerapenak izan direla mendekotasuna dutenentzako laguntzen ordainketan. Halaber, zenbait informazioaren arabera, atzerapen handiak izaten ari dira mende-

kotasuna dutenentzako laguntzen ordainketan, laguntza horiek onetsi zirenetik. Hori guztia dela eta, ondoko galderari idatziz erantzutea nahiko nuke:

1. Mendekotasuna dutenentzako laguntzak noiz ordaintzen diren normalena eta noiz ordaindu ziren abuztuan. Zergatik gertatu den atzerapen hori eta halakorik berriro gerta ez dadin hartuko diren neurriak.

2. Mendekotasuna dutenentzako laguntzen onuradun kopurua, mendekotasun-graduaren arabera.

3. Laguntza kobratzeko eskubidea izan arren hura jasotzen ez duten pertsonak ba al dira? Hala bada, zergatik ez duten jasotzen.

4. Betetzen ari al da eskaerak gehienez ere sei hilabeteko epean ebazteko betebeharrak ezartzen duen araudia? Horrela ez bada, zein da arrazoia eta zer neurri hartuko dira ezarritako epea beteitzeko?

5. Zein epetan gauzatzen dira laguntzak, behin ematea ebatzi ondoren? Laguntza desberdinen artean alderik badago, multzokatu epeen arabera.

Iruñean, 2011ko abuztuaren 24an

Foru parlamentaria: Txema Mauleón Echeverría

Galdera, Hezkuntza Departamentuko zuzendari nagusi izandako bat ikastetxe itundu bateko zuzendari izatera pasatzeari buruzkoa.

NEKANE PÉREZ IRAZABAL ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko irailaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nekane Pérez Irazabal andreak aurkeztutako galdera, Hezkuntza Departamentuko zuzendari nagusi izandako bat ikastetxe itundu bateko zuzendari izatera pasatzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2011ko irailaren 2an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Nekane Pérez Irazabalek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Bateragarria al da Hezkuntzako zuzendari nagusi izandako bat ikastetxe itundu bateko zuzendari izatera pasatzea berehala? Ba al du eskubiderik kargu-uzteen ordainsaria jasotzeko? Hala baldin badu, kargu-uzteen ordainsaria bateragarria al da lansari berriarekin?

Iruñean, 2011ko abuztuaren 4an

Foru parlamentaria: Nekane Pérez Irazabal

Galdera, emakumeen parte-hartze asoziatiboa sustatzen duen proiektu bat finantzatzeko erabilitako kontusail bati buruzkoa.

NEKANE PÉREZ IRAZABAL ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko irailaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nekane Pérez Irazabal andreak aurkeztutako galdera, emakumeen parte-hartze asoziatiboa sustatzen duen proiektu bat finantzatzeko erabilitako kontusail bati buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2011ko irailaren 2an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Nekane Pérez Irazabalek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Zein kontusail erabili da landa eremuko emakumeen parte-hartze asoziatiboa sustatzen duen proiektu bati dagozkion 20.000 euro finantzatzeko?

Gobernuak uste bazuen laguntza hori beharrezkoa zela, zergatik kendu zuen xede horretarako aurreikusi zen 75.000 euroko kontusaila?

Iruñean, 2011ko abuztuaren 25ean

Foru parlamentaria: Nekane Pérez Irazabal

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldearen eleduna aldatzea.

2011ko uztailaren 5ean aurkeztutako idazki baten bidez Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak jakinarazi zuen foru parlamentari Juan José Lizarbe Baztán jauna izendatzen zuela parlamentu-taldearen eledun, Roberto Jiménez Alli jaunaren ordeiz.

Iruñean, 2011ko irailaren 2an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Pedro Rascón Macías jauna Socialistas de Navarra parlamentu-taldean sartzea.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko irailaren 1ean egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ikusirik Pedro Rascón Macías foru parlamentariak aurtengo uztailaren 27an aurkezturiko idazkia, non jakinarazten baitu Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldean sartu dela, ERABAKI DA:

1. Idazki hori jasotzat ematea.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2011ko irailaren 2an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

José Javier Esparza Abaurrea jaunak foru parlamentari izaerari uko egitea.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko irailaren 1ean egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

José Javier Esparza Abaurrea foru parlamentariak foru parlamentari izaerari uko egiteko aurkeztu duen idazkiari dagokionez, hauxe ERABAKI DA:

1. Jasotzat ematea José Javier Esparza Abaurrea jaunak aurkezturiko idazkia, non foru parlamentari izaerari uko egiten baitio. Foru parlamen-

tari izaera lortu zuen martxoaren 28ko 1/2011 Foru Dekretuaren bidez deituriko Nafarroako Parlamenturako hauteskundeetan (2011-03-29ko 61. NAO), Unión del Pueblo Navarro (UPN) alderdiaren hautagaitzaren barruan.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2011ko irailaren 2an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

José Iribas Sánchez de Boado jaunak foru parlamentari izaerari uko egitea.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko irailaren 1ean egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

José Iribas Sánchez de Boado foru parlamentariak foru parlamentari izaerari uko egiteko aurkeztu duen idazkiari dagokionez, hauxe ERABAKI DA:

1. Jasotzat ematea José Iribas Sánchez de Boado jaunak aurkezturiko idazkia, non foru parlamentari izaerari uko egiten baitio. Foru parlamen-

tari izaera lortu zuen martxoaren 28ko 1/2011 Foru Dekretuaren bidez deituriko Nafarroako Parlamenturako hauteskundeetan (2011-03-29ko 61. NAO), Unión del Pueblo Navarro (UPN) alderdiaren hautagaitzaren barruan.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2011ko irailaren 2an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Lourdes Goicoechea Zubelzu andreak foru parlamentari izaerari uko egitea.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko irailaren 1ean egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Lourdes Goicoechea Zubelzu foru parlamentariak foru parlamentari izaerari uko egiteko aurkeztu duen idazkiari dagokionez, hauxe ERABAKI DA:

1. Jasotzat ematea Lourdes Goicoechea Zubelzu andreak aurkezturiko idazkia, non foru parlamentari izaerari uko egiten baitio. Foru parlamen-

tari izaera lortu zuen martxoaren 28ko 1/2011 Foru Dekretuaren bidez deituriko Nafarroako Parlamenturako hauteskundeetan (2011-03-29ko 61. NAO), Unión del Pueblo Navarro (UPN) alderdiaren hautagaitzaren barruan.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2011ko irailaren 2an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Juan Luis Sánchez de Muniain Lacasia jaunak foru parlamentari izaerari uko egitea.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko irailaren 1ean egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Juan Luis Sánchez de Muniain Lacasia foru parlamentariak foru parlamentari izaerari uko egiteko aurkeztu duen idazkiari dagokionez, hauxe ERABAKI DA:

1. Jasotzat ematea Juan Luis Sánchez de Muniain Lacasia jaunak aurkezturiko idazkia, non foru parlamentari izaerari uko egiten baitio. Foru

parlamentari izaera lortu zuen martxoaren 28ko 1/2011 Foru Dekretuaren bidez deituriko Nafarroako Parlamenturako hauteskundeetan (2011-03-29ko 61. NAO), Unión del Pueblo Navarro (UPN) alderdiaren hautagaitzaren barruan.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2011ko irailaren 2an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

